



**ARTZINIEGAKO UDALA**

**AKTA**

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**

**Eguna: 2019ko otsailak 7**

**Ordua: 09:05 – 10:55**

**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta

Inmaculada Vivanco Retes

Maria Lorente Burgos

Miren Izaskun Perez Barragan

Joseba Mirena Vivanco Retes

Arkaitz San Jose Martinez

Unai Gotxi Kastrexana

Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta presidenteak publikotzat jo ostean, 09:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

**1.- Eguneko Zentroa kokatzeko Xehetasunezko Ikerketa behin betikoz onartzea.**



Alkatea: azalpen-zatia irakurriko dut, beno, osorik irakurriko dut.

**“2019ko URTARRILAREN 16an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO  
INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

Kontuan izanik, Alkatetzaren 42/2018 zenbakidun Ebazpen bidez, 2018ko martxoaren 4an emana, hasierako onarpena eman zitzaiola SR-1 Plan Partzialaren zehaztapen eta aurreikuspenen egokitzapenean eragina duen Xehetasunezko Ikerketaren proiektuari, behin betikoz 1997ko abuztuaren 1eko 630 Foru Aginduz onartu zena, Ubaltorre kalean kokatutako 4. industrialdeko 799 katastro-partzelaren erabilera eta eraikuntzak berrantolatzeke xedez, eta hogeit egunetz jendaurrean ipini dela, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean 2018ko martxoaren 14ko datarekin, 31. zenbakiaz, ipinitako iragarki bidez, eta Noticias de Álava egunkarian 2018ko azaroaren 9an agertutako iragarki bidez, eta udal iragarki-oholean iragarrita.

Kontuan hartuta, era berean, jabedunei eta Xehetasunezko Ikerketaren lurralde-eremuaren barnean dauden zuzenean eragindako gainerako interesdunei pertsonalki jakinarazi zitzaiela.

Kontuan hartuta, jendaurrean ipinitako epean, EZZela alegaziorik aurkeztu.

Legez ezarritako izapidea eginik, eta 2019ko urtarrilaren 31ko Idazkaritzaren txostena ikusirik, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo

**AKORDIOA**

**LEHENA.** Xehetasunezko Ikerketaren Proiektuari behin betiko onarpena ematea, Ubaltorre kalean kokatutako 4. industrialdeko 799 katastro-partzelaren erabilera eta eraikuntzak berrantolatzeke xedez, 1997ko abuztuaren 1eko 630 Foru Aginduz behin betikoz onartutako SR-1 Plan Partzialaren zehaztapen eta aurreikuspenen egokitzapenean eragina duena, Eguneko Arretako Landa Zentro bat (EALZ) eraikitzeke beharrezko azalera erabilgarri izatea lortzeko ekipamendu sozialaren erabileraren txertapenarekin lotuta, azalera berrantolatu.

**BIGARRENA.** Behin betiko onarpenaren Akordioa Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**HIRUGARRENA.** Akordio honen berri ematea jabedunei eta Xehetasunezko Ikerketak zuzenean eragindako gainerako interesdunei, Hirigintza arloan eskumena duen Foru Organoari jakinarazteaz gainera.

**LAUGARRENA.** Alkateari Akordio hau erdiesteko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko boterea ematea".

Alkatea: beno, puntu honetan, genuena Arteko Aldapako parkingaren aldameneko partzela hori da, hasiera batean deierazko erabilera bat zuena, erabilera hezigarria, eta beno izapidea erabilera aldatzeari dagokio, bertan Eguneko Arretako Landa Zentroa



izango den zerbitzua finkatzeko. Zerbait esan nahi baduzue. Oraintxe bertan espazioa 10 pertsonentzat da, liburutegiaren aldamenean dagoen lokalean, eguneko zentro eta zaharren egoitza modura partekatzen dena. Oraintxe bertan eguneko zentroa da goizeko 11:00etatik arratsaldeko 17:30ak arte, eta arratsaldeko 17:30etatik aurrera zaharren egoitza da. Orduan kontua zera izango litzateke, 11:00 eta 17:30 bitartean ematen den zerbitzu hori, non, zerbitzu bat den, EALZ zerbitzua, eta ondoren ikusiko dugunez Arabari berezkoa zaion zerbitzua den, Bizkaian eta Gipuzkoan existitzen ez den eredu bat da, Bizkaian ere finkatzen ari dira pixkanaka, adin nagusiko pertsonen zuzendua dago, pertsona autonomoak, I desgaitasun-maila batekin, eta Araban ere II. mailako desgaitasun-maila duten pertsonen ere baimentzen zaie egoera berezitan, eta Aldundiak % 80 inguruan finantzatutako zerbitzu bat da.

Joseba Vivanco Retes: ez dakit zein plan... Aldundiak denborari dagokionez duen, noizko egon daitekeen, izan ere, azken batean, uste dut hau legealdiaren lehen urtean ezarri eta proiektatu zela apur bat, orduan eperik baden, bi urteren buruan egon daitekeen, hiru urtetan, urtebetean. Ez dakit Aldundiak eperik edo zerbait aurreikusten duen. Eta gero beste gauza bat, ez zuzenean xehetasunezko ikerketarekin lotuta, baina bai, eguneko zentroaren erabiltzaileei arreta emateko zerbitzua atzeratu egin denez, atzerapen hori zenbat denborakoa den kontuan izanik ondoren aldaketa hori etorriko dela eta plazak areagotuko direla.

Alkatea: kasu honetan Aldundiak proiektua nahiko aurreratuta du. Partzelaren kalifikazioaren zain zegoen apur bat proiektua behin betikoz eratu eta guri helarazi ahal izateko. Aldundiak egiten duen eraikina modularra da, eta finantzazioari dagokionez, proiektua izan bezain laster finantzazioaz ere hitz egin behar dugu, izan ere, finantzazioa ez da % 100 Aldundiaren esku, Udaletik ere jarri behar dugu gure zatia. Ez dakit, era berean, eraikin berriaren eraikuntzaren finantzazioari dagokionez portzentajea 80-20 ote den. % 80 Aldundiak eta % 20 Udalak. Eta ondoren, era berean, Foru Planak estalitako obrak dira horiek. Zerbitzua ematearen atzerapenari dagokionez, uste dut ez dela zertan eraginik izan, izan ere, eraikin berri bat duzun momentuan zerbitzua lekualdatzea da egingo duzuna.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina plazak areagotu egin behar dira. 10 plazetarako dago aurreikusia.

Alkatea: bada, uste dut hasiera batean plaza kopurua berdina izango litzatekeela. 10 plazetarako izaten jarraituko luke, beranduago jende gehiagorentzat eman ahal izatearen kalterik gabe.

Joseba Vivanco Retes: nik uste nuen handiagoa zen bat egin behar zela.

Alkatea: uste dut handitu egin dela. Ikusiko dugu proiektua.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.



Abstentzioa:

Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu taldetik (1);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes eta Arkaitz San Jose Martinez, EHBildu alderditik (2); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

**2.- Artziniegako Udalaren adostasuna agertzea Diputatuen Kontseiluko abenduaren 21eko 765/2018 akordioarekin, hartako aurreko abenduaren 26ko 904/2016 akordioa, gizarte zerbitzuen, etxez etxeko laguntza-zerbitzua salbuetsita, behin-behineko mantenua onartzekoa, 2020ko ekainaren 26ra arte atzeratzea onartzekoa.**

Alkateak irizpena irakurri du.

***“2019ko URTARRILAREN 16an EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.***

*Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko (aurrerantzean GZL) 42. artikuluan aurreikusten denez, Udalaren eskumenekoak dira funtzio hauek:*

(...):

3) *Gizarte zerbitzuak sortu, antolatu eta kudeatzea 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

4) *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak betetzea, 22. artikuluko 1, atalean arautzen direnak, telelaguntza zerbitzua salbuetsita.*

*GZL legeko 2. artikuluan era berean, gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzen da, 2016k abenduaren 26an atondu zena.*

*Eskakizun horien ondorioz, Artziniegako Udaleko Udaltzak adierazten du:*



- a) *GZL legearen 42. artikuluan, nahiz Legean jasotako bestelako araudi batzuetan, udal eskumena eta zerbitzua modu eraginkorrean ematea bereizi egiten direla.*
- b) *GZL legearen helburu argi eta zehatza udal eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak modu bateratuan eman ahal izatea dela (28.2. eta 29.4. artikulua, GZL).*
- c) *Helburu hori erabat agerikoa dela Arabako Lurralde Historikoan, izan ere, bertan, Gasteiz salbuetsita, ez dago 20.000 biztanletik gorako udalerririk, ezta Artziniegako udalerrian ere.*
- d) *Prestazio bateratu hori GZL legearen 36.5. artikuluan ere ohartarazten dela, izan ere, bertan zehazten denez, Gizarte Zerbitzuen Mapan Foru eta Tokiko administrazioek zehaztutako mugaketa geografikoak aplikatuko dira. Bere garaian Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartuta, oraindik zehazteke dago nola eman behar diren, zenbait kasutan, gizarte zerbitzu horiek udal-mugapena gainditzen duten lurralde-eremuetan*
- e) *Orain arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta Diputatuen Kontseiluko abenduaren 26ko 904/2016 akordioaren bidez estaltzen duela udal zerbitzuen zati esanguratsu bat, ezarritako aurreikuspenen arabera udal eskumenekoa dena.*
- f) *GZL legean espresuki aitortzen dela administrazioen arteko kooperazio eta lankidetzarako betebeharra, diseinatzen den gizarte zerbitzuen sistema integratu bati berez dagokiona.*
- g) *Era berean, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31. 2a) artikuluan aurreikusten denez, Aldundien helburuetako bat "udal eskumenekoak diren zerbitzuak probintzia osoan modu oso eta egokiak eman daitezela ziurtatzea" dela.*
- h) *Artziniegako Udalak 2018ko maiatzaren 3an adostasuna agertzea erabaki zuela Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte zerbitzuak 20.000 biztanletik beherako udalerrietan Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoetako Udallerriek kudeatu izan duten moduan ematen jarraitzea onartu zen behin-behinekoz, 24 hilabeteko epealdi iragankor batez. Epe horretan Mapa eratzeko eraturako instituzio arteko Mahaiak gizarte zerbitzu guztiak modu eraginkorrean emateko beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko lituzke, bakoitzari dagozkion eskumenen barruan, adierazitako epealdiaren barruan pixkanaka ezarriz joango litzatekeena.*
- i) *Prozesu hori ez dela gaur egun amaitu, etxex etxeko laguntza-zerbitzuari dagokiona salbuetsita.*



*Ikusirik, Arabako Foru Aldundiaren 765/2018 akordioa, abenduaren 21ekoa, aurreko 904/2016 akordioa, abenduaren 26ko, gizarte-zerbitzuak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua salbuetsita, Aldundiak eta Arabako lurralde historikoko udalerriek orain arte kudeatu izan duten moduan 20.000 biztanletik beherako herritan, bere garaian adostutako baldintza beretan, behin-behinekoz mantentzeari buruzkoa, 2020ko ekainaren 26ra arte atzeratzeko proposamena Lurralde Historikoko Udaletara helaraztekoa.*

*Kontuan izanik, beharrezkotzat jotzen dela, aurrez adierazitako udal eskumenekoak diren zerbitzuak emateko eta lankidetzan lan egiten jarraitzeko helburuarekin, era berean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorro Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa betetzeko xedez, egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko eta juridiko nahiz finantza aldetiko kaudimenaren ikuspegi batetik.*

*Eta, araudiko datutik abiatuz, Akordio horretako hirugarren puntuan ezartzen denez, Udallerri bakoitzean haren eraginkortasuna baldintzaturik dagoela, eskumeneko udal organoaren adostasuna eskuratzearekin eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiari horren ziurtagiria igortzearekin.*

*2019ko otsailaren 16an egindako saioan Herritarren Informazio Batzordeak Udalbatzari proposatzen dio har dezala hurrengo **AKORDIOA**:*

**Lehenengoa:** *Artziniegako Udalaren aldeko adostasuna agertzea, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 21eko 765/2018 akordioari, aurreko 904/2016 akordioa, abenduaren 26koa, gizarte-zerbitzuak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua salbuetsita, Aldundiak eta Arabako lurralde historikoko udalerriek orain arte kudeatu izan duten moduan 20.000 biztanletik beherako herritan, bere 2018ko maiatzaren 3ko Saioan egindako erabakiz adostutako baldintza beretan, behin-behinekoz mantentzea onartzekoa, 2020ko ekainaren 26ra arte atzeratzea onartzekoa.*

**Bigarrenik.** *Alkateari akordio honetan xedatzen den oro garatu eta kudeatzeko eskumena ematea.*

**Hirugarrenik.** *Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea, aipatutako testuaren hirugarren xedapenean aurreikusitako ondorioetarako”.*

*Alkatea:* *Zerbitzua oraingo baldintzetan mantentzeko proposamena gizarte-zerbitzuen Legetik, gizarte-zerbitzuetako mapa eratzetik eta, ondoren, ematen diren zerbitzuak egunean jartzetik, pixkanaka eguneratzetik eratortzen da, Arabako lurraldearen kasuan, batez ere, Foru Aldundiaren eskutik ematen delarik, Gasteizko*



sekzioak Arabako gainerako udalerrien kasuan. Gaurdaino dagoeneko erregularizatuta dagoen zerbitzua etxez etxeko zerbitzua da eta atzerapenari dagokionez, guri funtsean eragiten digu, hain zuzen, Eguneko Arretarako Landa Zentroan, eta berriro diot oraintxe Foru Aldunditik kudeatzen da, mantenu-gastuak 80-20 dira, eta EALZ zentroyen kasuan egiten dena hain justu horien funtzionamendua da, beren berezitasuna dela medio. Arestian esan dudan moduan, ia eksklusiboki Araban funtzionatzen ari diren zentroak dira. Bertan pertsona autonomoei eta I mailako degaitasun-maila duten eta udal eskumenaren baitakoak diren pertsonaei ematen zaie zerbitzu eta, kasu berezietan, II mailako degaitasun-maila duten pertsonak ere onartzen dira. Azken horien kasuan eskumena Aldundiarena izango litzateke. Horrenbestez, teorian, pertsona batek II mailako desgaitasuna izango balu, gizarte-zerbitzuen legeari helduz, ez litzateke EALZ zentroko erabiltzailea izan behar, baizik eta Aldundiaren baitako eguneko zentro batera pasa beharko litzateke, Laudiora edo Gasteizera lekualdatuz. Agerian jartzen bada, pertsonak, ahal den heinean, bizitzen aritu diren udalerrian bizitzearen egokitasuna, nahiz eta II mailako desgaitasuna izan, eta horregatik egiten da lan ikusteko zer-nola artikula daitekeen EALZ zentroyen kasuan dagoen salbuespen hori. Eta hitzarmen hau bat dator Diputatuen Kontseiluaren akordioarekin, gizarte-zerbitzuak luzatzeari buruzkoarekin, etxez etxeko laguntza zerbitzua salbuetsita, hori araututa baitago, orain dauden baldintza beretan. Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Vivanco Retes: bai, botoaren argudio hau. Irakurriko dut:

*“Legealdi honetan zehar Prestazio eta Zerbitzuetako Zorroen arabera Gizarte Zerbitzuak berregituratzearen gaia jorratu da. Berrantolaketa premiazko eta beharrezkoa, nabarmen atzeratu dena eta 2016ko abenduan amaituta egon behar zena.*

*EH Bildutik, eta lehendabiziko egunetik, lan horri oso serio heldu diogu, orduak, bitartekoak eta pertsonak inbertituz, buruan helburu bakarra genuela; gizarte zerbitzuak, oinarritzkoak eta herritarrentzat beharrezkoak, hobetzeko irekitako abagunea aprobetxatzea.*

*Beti ikuspegi positibo batekin egin dugu lan, proposamen zehatz eta landuekin, baina EAJ alderdiaren gobernuak Aldundian duen jardunik ezarekin topatu gara, eta alderdi horrek EUDELen etengabe ipintzen dituen oztupoekin.*

*Azken kapitulua Eguneko Arretarako Landa Zentroyen berrantolaketarena izan da, osoko honetara ekartzen gaituena. EH Bildu taldeak planteatu zuen proposamen bideragarri bakarra, gure udalekin eta gizarte langileekin landua. Bideragarritasun hori EUDELe kontratatutako talde juridikoak ere aitortu du eta, halere, EAJ alderdiaren erantzuna EZ izan da. Atzerapen hau aurkeztea izan da. Ez da une egokia, diote. Hauteskundeak datoz, diote. Baina, 2016an amaituta behar zuena 2020. urtera bidali nahi dute.*

*EH Bildutik Foru Aldundiak eskatutako atzerapena onartu egingo dugu ez dugulako beste aukerarik, izan ere, Aldundiak negoziatu nahi ez badu guk ezin dugu horretara behartu, baina enegarrenez galdutako aukera tamalgarrria dela adierazi nahi dugu, eta EAJ alderdiari erantzukizunerako eta sen onerako deia egiten diogu lanketa hori gehiago*



*atzera ez dezaten eta lanari ekin diezaioten, eskuak zikin ditzaten eta Gizarte Zerbitzuak hobetzeko lan egin dezaten”.*

Joseba Elejalde Ribacoba: gai horren inguruan, Josebak ongi azaldu duen moduan, gizarte-zerbitzuetako mapa amaituta behar zuen 2016an, 2019an gaude, eta beste gauza asko bezalaxe denboran atzera doa. Nire botoa aldekoa izango da baina arrazoi berdinak direla medio. Azken batean udalok, gizarte-zerbitzuak eratzeko eginkizuna dugularik, Damoclesen ezpata dugu aurrez aurre, Arabako Foru Aldundiaren gonapetik igaro ala horren beharrezkoa den finantzaketarik gabe geratu. Guztia hobetu daiteke, baina hori egiteko borondatea behar da, eta akordioetara iristeko gogoia. Nire botoa aldekoa izango da baina osoko bilkura honetan argi utziz orain arte nagusitu diren formak eta moduak ez direla normalak.

Alkatea: nik uste argi dagoela Araban EALZ zentroaren sistema funtzionatzen ari dela, bai, bai, funtzionatzen ari da. Zerbitzuak behar bezala funtzionatzen du, duela urte asko ematen diren zerbitzu horiek gizarte-zerbitzuetako lege berrira egokitzea eta eskumenen banaketa kontu konplexua da, eta lanak aurrera dirau. Eudeleko mahaitik lanean jarraitzen da, Aldundiak lanean jarraitzen du, eta ziur akordio bat erdiesten dela, baina garrantzitsuena da zerbitzuak mantendu daitezela. Beraz, bozka dezagun.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

**3.- A-2602 eta A-4624 Errepideak egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza Proiektuaren Likidazioaren egoera onartzea.**

Alkateak irizpena irakurri du.





## **“2019KO URTARRILAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

**Gaia: 17.472,83 euroko igoera onartzea behin “A-2602 eta A-4624 Errepideak egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza Proiektuko” obren likidazioa onartu ostean.**

Ikusirik “A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko lanen espedientea, zeina gauzatzeaz Arabako Foru Aldundia arduratu den “Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko eraikuntza-proiekturako” izeneko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

**KONTUAN HARTUZ**, A-2602 eta A-4624 errepideak Egokitu eta urbanizatzeko proiektua Artziniegako Udalak onartu zuela, 2015eko ekainaren 1ean egindako Tokiko Gobernu Batzordearen Saioan, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin.

**KONTUAN HARTUZ**, 2015eko uztailaren 31n (2015-08-12ko 1824 sarrera) Arabako Foru Aldundiaren eta Artziniegako Udalaren artean lankidetzeta-hitzarmena sinatu zela A-2602 eta A-4624 errepideak, Artziniegatik (Araba) igarotzen diren gunean, egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza-proiektua gauzatzeko, 2015eko ekainaren 4an egindako ezohiko saioan Udalbatzak hala onartuta, 1.549.834,34 euroko zenbateko batekin, BEZ barne, horrela finantzatuta:

	<b>GUZTIRA</b>
<i>Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Saila</i>	<i>755.755,50</i>
<i>Obra eta Zerbitzuen Foru Plana</i>	<i>230.146,98</i>
<i>Artziniegako Udala</i>	<i>563.931,86</i>
	<b>1.549.834,34</b>

**KONTUAN HARTUZ**, 2015eko azaroaren 24an (2015-11-27ko 2712 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalari jakinarazi ziola Diputatuen Kontseiluko uztailaren 21eko 411/2015 Akordio bidez, obra Construcciones Moyua, S.L. sozietateari esleitu zitzaiola 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz (BEZ barne) eta 8 hilabeteko gauzatze-epe batekin.



**KONTUAN HARTUZ**, 2016ko irailaren 15ean (2104 sarrera) Obra Publikoetako Negoziatuak Artziniegako Udalari jakinarazi ziola Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako diputatuak irailaren 6ko 789 zenbakidun Foru Agindua eman zuela, A-2602 eta A-4624 errepideak egokitu eta urbanizatzeko aipatu proiektua gauzatzeko epea 2016ko urriaren 21era areagotzeko.

**IKUSIRIK**, 2017ko urtarrilaren 19an (149 sarrera) Bide Azpiegituretarako eta Mugikortasunerako Zuzendariak 2016ko urtarriletik urrira egindako ziurtagirien kopia igorri zuela, A-2602 eta A-4624, errepideak egokitu eta urbanizatzeko proiektuari, 1.282.107,51 eurokoa, buruzkoak. Halaber, jakinarazten du berehala Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 466.515,19 euroko zenbatekoaz eskakizun bat igorriko diola Udalari, ziurtatutako zenbatekoaren % 36,39ari dagokiona.

**IKUSIRIK**, 2017ko urtarrilaren 24an (201 sarrera) 2tik 11ra bitarteko ziurtagiri-zenbakien fakturen kopia erregistratu zela.

**IKUSIRIK**, 2017ko urtarrilaren 25ean (213 sarrera), Finantza eta Aurrekontu Zuzendariak eskatu zuela Udalak 466.515,19 euroko diru-sarrera egin zezala eta ziurtagiriak atxiki zituela, 1.282.177,94 euroko zenbatekoaz.

**IKUSIRIK**, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailak "Diputatuen Kontseiluaren 575/2012 akordio bidez Tokiko Erakundeari onartutako diru-laguntzarekin, Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Oreka Sailaren aurrekontuan kargatuta, hasiera batean 230.146,98 euroko zenbatekoaz eta diru-laguntzaren araudi espezifikoa ezarritako berrikuspen, baldintza eta betekizunen baitan, proiektuaren finantzaketan parte hartzeko hitzarmenaren barnean" eskatzen duela ziurtagiriak udal organo eskudunak onartzea, zenbatekoari so Udalbatzari dagokiona, erakunde onuradun gisa.

**IKUSIRIK**, Artziniegako Udalak 2017ko otsailaren 9an egindako saioan, 1-11 bitarteko ziurtagiriak onartu zituela, 1.282.107,51 euroko zenbatekoaz.

**IKUSIRIK**Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26an egindako saioan, 450 zenbakidun Akordio bidez, azken ziurtagiria eta obrak 110.594,25 euroko zenbatekoan handitzea onartu zuela, (2079 zenbakidun sarrera), obrari kostu osoa honakoa izanik: 1.392.772,19 €.



Obrako kostuaren banaketa Hitzarmenaren arabera horrela egiten da:

<b>Hitzarmenaren Zatiak</b>	<b>Konpromisoa hartutako zenbatekoak</b>	<b>finantza keta %</b>
AFA. Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	53.925,75	% 48,76
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	16.423,25	% 14,85
Artziniegako Udala	40.245,25	% 36,39
<b>GUZTIRA</b>	<b>110.594,25</b>	

#### **PROIEKTUAREN KOSTUA GUZTIRA 1.392.772,19**

**IKUSIRIK**, 2018ko azaroaren 9an (2974 sarrera) Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zerbitzuak Artziniegako Udalari jakinarazi ziola behin obren likidazioa onartuta igoera bat eman dela, 17.472,83 eurokoa eta 6.358,36 euroko sarrera eskatzen duela, sinatutako Hitzarmenaren oinarriaren % 36,39 suposatzen duelarik.

**IKUSIRIK**, zerbitzu teknikoek ezin dutela ziurtagiri horien gaineko txostenik eman, izan ere, kontratazio-prozedura Arabako Foru Aldundiak izapidetu du, eta baita obrak gauzatzea ere, sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren arabera.

Ikusirik, Foru Planaren Zerbitzuak onartutako diru-laguntzaren araudi espezifikoak, zeinaren arabera Udalbatzak onartu behar dituen obrako ziurtagiriak, Udalbatzak, bost zinegotziren aldeko botoarekin, gehiengo soilarekin hartzen du hurrengo **ERABAKIA**:

**Lehena:** 17.472,83 euroko igoera onartzea behin "A-2602 eta A-4624 Errepideak egokitu eta urbanizatzeko Eraikuntza Proiektuko" obren likidazioa onartu ostean, (Construcciones Moyua, S.L sozietateak 2018ko urriaren 17an igorritako 18/10/051 faktura), Construcciones Moyua sozietateari esleitua 1.282.177,94 eurotan, 110.594,25 eurotan areagotua.

Igoera horretatik Artziniegako Udalari dagokio 6.358,36 euro ordaintzea, BEZ barne, Hitzarmenetik eratorritako hurrengo banaketaren arabera



<b>Hitzarmenaren Zatiak</b>	<b>Konpromisoa hartutako zenbatekoak</b>	<b>finantza keta %</b>
<i>AFA. Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna</i>	8.519,75	% 48,76
<i>Obra eta Zerbitzuen Foru Plana</i>	2.594,71	% 14,85
<i>Artziniegako Udala</i>	6.358,36	% 36,39
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.472,83</b>	

**Bigarrena:** Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundi Txit Goreneko Foru Planaren Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Orekarako Sailari.

**Hirugarrena:** Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzari dagokion zenbatekoa ordaintzea”

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Vivanco Retes: bi galdera besterik ez. Bat, behin obraren likidazioa onartuta, izan den 17.000 euroko igoera, nondik norakoa da? Eta ondoren, osoko bilkuraren aurretik obra honekin lotuta han-hemen hedatzen ari den arazoetako bat jasotzen duen orri bat banatu zaigu, igerilekuen pareko lurak direla eta, orduan gai honekin irtenbiderik izan ote den, edo irtenbiderik izango ote den.

Alkatea: beno, gai honekin zehazki duela hilabete egon zen, joan den abenduaren 26an, errepideetako Diputatua. Bertan izan ginen guztiok. Aldundirik begiratu eta irtenbide bat bilatuko dela adierazi zigun, irtenbide bat bilatuko da. Igoerari dagokionez, uste dut memorian jasotzen dela, burututako esku-hartzeak zein izan diren, ez ditut hemen, baina uste dut espedientean daudela.

Joseba Vivanco Retes: Baina esku-hartze horiek ez al dira buruzeke geratzen ziren lanak, edo...?

Alkatea: egikarizetik eratorritako lanak dira.

Joseba Vivanco Retes: Burutzeke geratu ziren lanak?

Alkatea: bai baziren burutzeke geratu ziren lanak, egikarizetik eratorritakoak. Dakizuenez, gai honetan, prozedura honetan, hasiera batean Moyua enpresak administrazioarekiko auzoa ipini zuen Arabako Foru Aldundiaren aurrean, eta azkenik adostasun bat erdietsi zen, administrazioarekiko auziaren garapena eten zuena.

Joseba Vivanco Retes: eta lurraren gaiarekin, ba al dago Aldundiaren aldetik horri irtenbidea emateko konpromisoa?



Alkatea: bai.

Joseba Vivanco Retes: ez dakit konpromiso hori adierazi ote dizuen...

Alkatea: Diputatuarekin hitz egingo dut.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (3);

Abstentzia:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

#### **4.- 2019rako diru-laguntzen oinarriak.**

Alkatea: 2019ko ekitaldirako elkarteentzako diru-laguntzen oinarriak dira. Uste dut hemen ez dagoela akordioaren eredua, baina oinarriak antzekoak dira, oinarria onartzea da kontua, 2018ko ekitaldikoaren antzekoak dira. 2019ko urtarrilaren 9an bilkura bat izan genuen elkarteekin 2018. urtean egikaritzeari dagokionez zein arazo egon ziren ikusi ahal izateko, eskaerak ikusi ahal izateko, orduan onartu baitziren oinarriak lehen aldiz. Ez zen gauza adierazgarririk egon eta, proposamena, ahalik eta lasterren egin ahal izateko, sistema mantentzea da, 2018ko ekitaldiko oinarriak. Irizpena irakurri du.

#### **“2019KO URTARRILAREN 16AN EGINDAKO SAIOAN HERRITARREN INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA**

*Ikusirik Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako eta 2019ko ekitaldian onartzen diren diru-laguntzen oinarri arautzaile espezifikoak eta deialdia, Udalbatzari proposatzen zaio har dezala hurrengo:*



## **AKORDIOA**

Onarpena ematea Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako eta 2019ko ekitaldian onartzen diren diru-laguntzen oinarri arautzaile espezifikoari eta deialdiari, jarraian adierazten den moduan idatzita:

### **« Artziniegako Udala**

**Artziniegako Udalaren kultur eta kirol jardueretarako 2019ko diru-laguntzen oinarri arautzaile espezifikoak eta deialdia.**

#### **1. artikulua-Diru-laguntzen esparruak eta ildoak**

1. Aisia eta astialdiko jarduerak
2. Gizarte- eta kultura-animazioko eta komunitate-garapeneko jarduerak
3. Kultura ondarea
4. Kirola sustatzeko jarduerak
5. Usadioen alde egiteko eta haien zabalkunderako proposamenak
6. Artziniegako udalerria sustatzen laguntzeko jarduerak
7. Beste kultura eta kirol jarduera batzuk

#### **2. artikulua - Eskatzaileak**

1. Aurreko artikuluan deskribatzen diren jarduerak Artziniegan sustatzeko interesa duen edozein entitate edo pertsonak eskatu ahal izango du diru-laguntza.

2. Proposatutako programek tokiko esparruari emango diote lehentasuna, edo interesgarriak izan behar dute udalerraren gizarte eta kultura garapenerako.

3. Diru-laguntzak jasotzen dituzten elkarte eta pertsona fisiko guztiek diru-laguntza eman duen erakundearen logotipoa jarri behar dute agerian gauzatzen dituzten jarduera diruz lagundu guztietan, eta euskarari eta berdintasunari dagozkion irizpideak bete behar dituzte karteletan, hizkuntza eta irudi barneratzaileak erabiliz.

Hori dela-eta, Udalak berdintasunaren arloko prestakuntza eta aholkularitza tekniko jarraitua antolatuko du elkarteentzat.

Ezingo dira izan diru-laguntzen onuradun beren antolakundean eta jardueren programazioan genero berdintasuna begiratzen ez duten entitateak.



4. Elkarteak eta entitateak irabazteko xederik gabeak izan beharko dira. Eusko Jaurlaritzaren elkarteen erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

5. Elkarrekin deialdi honetarako aurkeztu dituzten programak eta jarduerak Artziniegako Udalaren urteko kultur programazioaren barruan sartuta egon beharko dira, eta, beraz, udalarekin hitzartu beharko da, alde aurretik, Artziniegan 2019an gauzatuko diren diruz lagundutako kultur programa batzuen eta besteen arteko koordinazio globala lortzeko.

### **3. artikulua-Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak**

1. Eskakerak aurkezteko epea hilabete izango da, deialdi hau «Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunetik hasita.

Eskabideak inprimaki ofizialean aurkeztuko dira, Artziniegako Udalaren erregistro orokorrean, zuzenean

nahiz Administrazio Prozeduraren Legean ezarritako moduetako batean, eta, betiere, deialdian ezarritako epeen barruan.

2. Alde batera utzi gabe jardun arlo bakoitzak galdegiten duen dokumentazio espezifikoa, eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira, eta, haiekin batera, dokumentu hauek ere bai:

1) Eskabidea elkarte ordezkatuz sinatzen duen pertsonaren izen-deiturak eta NANA.

2) Diru-laguntzaren epearen barruan garatu beharreko jardueretako bakoitzaren gaineko memoria-proiektua (urtebeteko ekitaldiari dagokiona), euskarak zer presentzia izango duen zehaztuz eta berdintasuna eta dibertsitatea nola barneratzen diren azalduz, baleude.

3) Jardueretako bakoitzaren programak eta/edo proiektuak deskribatzea, eguna, lekua eta ordutegia adieraziz. Jarduera zehatzen eskabideak jarduerak kudeatzeko behar besteko aurretiaz aurkeztu behar dira. Laguntza ekonomikoaren eskabidea gorabehera, diru-laguntzaren eskabidetik bereizitako agirian zehaztu beharko da zer beharizan tekniko dakartzan (kaleak ixtea, oholak eta astoak, kirol pista, oholtza...) diruz laguntzeko eskatzen den jarduerak.

4) Garatu beharreko jardueretako bakoitzaren aurrekontu xehakaturik, kontzeptuz kontzeptu, berariaz adieraziz gastu eta diru sarrerak, eta diru sarreraren artean sartuz beste organismo edo erakunde batzuek eman dituzten edo eman asmo dituzten diru-laguntzak nahiz beste edozein eratako diru-sarrerak.

5) Proposatutako jardueren parte hartu behar duten elkarten zerrenda.

6) Elkarteak aurreko ekitaldian gauzatu zituen jardueren zerrenda.

7) Zerrenda bat, zehaztuz zein jardueratan aritu zen elkarlanean elkarte udalarekin aurreko urtean.



8) Zinpeko adierazpena, adieraziz zein beste departamendu, erakunde edo organismori eskatu zaion diru-laguntza, edo, hala balegokio, hala eman diren diru-laguntzei buruzkoa..

9) Elkaratearen zerga identifikazioko zenbakiaren fotokopia.

10) Eskatzailearen zinpeko adierazpena, jarduera horrek irabazteko xederik ez duelakoa.

11) Zuzendaritza Batzordearen inskripzio ziurtagiria.

12) Elkartea Eusko Jaurlaritzaren Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

13) Artziniegako Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak ordainduta dituelako ziurtagiria.

14) Diru-laguntza sartu deneko elkarteren edo pertsona fisikoren kontuaren zenbakia.

#### **4. artikulua-Diruz lagun daitezkeen gastuak**

Diruz laguntzeko moduko gastuak bat etorri behar du, inolako zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerarekin, eta, betiere, behar-beharrezkoa izan behar du, eta ezarritako epearen barruan gauzatua, alegia, 2019. urtean; gainera, behar bezala justifikatuta egon behar du, indarrean dagoen araudiarekin eta udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz.

Udalaren diru.laguntzetarako deialdi honen helburua da entitate eskatzaile horien ekintzari laguntzea eta ekintza hori osatzea

Organo eskudunak bere esku izango du aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzea hala behar denean, eta, dokumentazio hori ez bada zuzena edo osoa, dagozkion neurriak ezarriko dira.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoa betetzearren (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa), entitate eskatzaileei ohartarazten zaie ezen zerrendan aipatutako dokumentuen arteko zati baten gisa aurkeztutako datuak ez direla erabiliko urteroko diru-laguntza emateko prozeduran baizik, zeinaren deialdia oinarri hauek arautzen baitute.

Eskabidearekin batera ez bada aurkezten lehen aipatutako dokumentazioa, edo aurkeztutako dokumentazioak formazko hutsegiteren bat badu, interesdunari eskatuko zaio zuzen ditzala hutsegiteak edo osa ditzala aurkeztu gabeak 10 egun balioduneko epean, hala jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita.

#### **5. artikulua-Balioespen-irizpideak**





*Epaimahaiak, diru-laguntzak emateko edo banatzeko proposamenak aztertzeko, irizpide hauek izango ditu kontuan:*

*1.- Aurkeztutako jarduerak baloratzeko irizpideak: guztira 33 puntu, honela banatuta:*

*a) Beste elkarte batzuekin harremana izateko gaitasuna: Artziniegako talde batzuek eta besteek nola parte hartuko duten jarduera diruz lagunduan. 2 puntu parte hartzen duen talde bakoitzeko, antolatzailea kontuan hartu gabe. Gehienez 6 puntu.*

*b) Originaltasuna: ideia berriak, Artziniegako Udalak babesten dituen gainerako elkarteek lantzen dituzten proiektuak ez bezalakoak. 0 - 10 puntu bitartean.*

*c) Ekonomiaren ikuspuntutik, jarduera baloratuko da gastuen guztirako aurrekontuaren arabera, irizpide honen arabera: 1 eta 1.499 euro artean: 4 puntu*

*1.500 euro baino gehiago: 6 puntu*

*d) Finantza ahalegina: (beste finantzaketa iturri batzuk bilatzea). Gehienez 7 puntu. Finantzaketa guztia udalaren gain bada, 0 puntu. Autofinantzaketaren maila ehuneko 1 eta 20 artean bada, 2 puntu. Ehuneko 20 baino gehiago bada. Ehuneko 50 arte, 4 puntu. Autofinantzaketaren maila ehuneko 50 eta 80 artean bada, 6 puntu. Ehuneko 80 baino gehiago bada, 7 puntu.*

*e) Jarduera non gauzatzen den: puntu 1, jarduera gauzatzen den herrigune bakoitzeko. Jarduera herrigune batean baino gehiagotan gauzatzen bada, puntu bat jarduera gauzatzen den herrigune bakoitzeko (4 puntu gehienez)*

*Herriguneak: Artziniega, Campijo, Gordeliz, Mendieta, Erreta Tuter, Santa Koloma eta Soxoguti.*

*2.- Elkarte Artziniegako kultur eta kirol arloan zenbateraino dagoen finkaturik. 20 puntu, honela banatuta:*

*a) Entitateak herrian zer tradizio duen. 10 urte baino gehiagoko tradizioa eta jarduera baditu, 5 puntu; 5 eta 10 urte arteko tradizioa eta jarduera baditu, 3 puntu; 5 eta 1 urte arteko tradizioa eta jarduera baditu, puntu 1, eta urtebeteko antzintasuna ez daukaten elkarteek ezingo dute eskatu diru-laguntza arruntik.*

*b) Elkarte eskatzaileak udalaren jardueretan laguntzea. Aurreko ekitaldian lagundutako jarduera bakoitzeko, puntu 1. Gehienez 5 puntu.*



c) Gauzatutako jarduerak: Aurreko ekitaldian gauzatutako jarduera bakoitzeko, puntu 2. Gehienez 10 puntu.

3.- Hizkuntza normalizazioko irizpideak. 0 - 6 puntu bitartean.

- Proiektua erabat euskaraz gauzatzen bada, 6 puntu.
- Proiektua ele bitan gauzatzen bada, 3 puntu.
- Jardueran ez bada euskararik erabiliko, 0 puntu.

4. Berdintasun eta dibertsitate irizpideak. 0 - 6 puntu bitartean.

- Proiektuaren helburua bada berdintasuna eta dibertsitatea sustatzea. 6 puntu
- Proiektuak ez badu kontuan hartzen genero ikuspegia sartzea jardueran. 3 puntu.
- Proiektuak ez badu aipatzen berdintasuna. 0 puntu.

5.- Ezein jarduerak ezingo du jaso aurrekontuan izendatutako ekonomia partidan aurreikusitako hasierako kredituaren guztirako zenbatekoaren ehuneko 50 baino gehiagoko diru-laguntza.

**6. artikulua-Instrukzioa eta epaimahaia**

Instrukzio prozedura eta epaimahaia diru-laguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitakoak izango dira.

**7. artikulua-Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin**

Diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz izan diruz laguntzeko eskatu den programaren edo jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

**8. artikulua-Ebazpena**

Ebazpena emateko gehienezko epea bi hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Ebazpena 10 eguneko epean jakinaraziko da, eta ebazpenaren aurka legez zer errekurtso aurkez daitezkeen adierazi beharko da.



### **9. artikulua-Diru-laguntza publikoak justifikatzea**

*Diru-laguntzak justifikatu egin beharko dira, Artziniegako Udalaren diru-laguntzen ordenantza orokorrean aurreikusitako prozedurari jarraituz, frogagiriak Artziniegako Udalaren erregistroan aurkeztuz hiru hilabeteko epean gehienez ere, jarduera amaitzen denetik hasita. 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen, edonola ere.*

### **10. artikulua-Aplikatzekoa den araudia**

*Eskabideak aurkezteko prozedura 38/2003 Legean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Orokorra) eta Diru-laguntzak Arautzen dituen Udalen Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.*

### **11. artikulua-Zenbateko izendatuak**

*Aurrekontu partida hauetan daude izendatuta programa guztietarako zenbatekoak: 330.481.002 "Kultura jardueretarako diru-laguntzak", eta 341.481.002 "Kirol jardueretarako diru-laguntzak".*

*Araubidea: Lehia bidez esleituko dira.*

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako Artziniegako Udalaren udal diru-laguntzen emakida arautzen duen Ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

Halaber, interesdunen eskura dago Artziniegako Udal honen web-orrian "[www.artziniegakoudala.eus](http://www.artziniegakoudala.eus)"

Jendaurrera jakinarazten delarik, oro har, jakina izan dadin"

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Elejalde Ribacoba: hizkuntzaren normalizazioaren gaia besterik gabe, izan genuen bilkuran aipatu zen moduan. Eta gainera aipatu nuen, gainera jarduera bat izan berri genuen, bilkura izan genuen egunean edo bilkura izan eta egun gutxira, eta azkenean kontua da nork balioetsiko duen edo nor egon daitekeen esanez proiektua euskaraz garatzen den osorik, edo elebitan garatzen den osorik, edo gaztelaniaz soilik garatzen den. Azken finean hori subjektiboa da, nik ez dut uste hemen gauden 9 zinegotziok ñabartuko dugunik % 50 euskaraz hitz egin den eta beste % 50 gaztelaniaz, edo % 80 euskaraz eta % 20 gaztelaniaz, edo osorik euskaraz, edo osorik gaztelaniaz,



eta hona etorri eta oharra jasotzen dugunik. Nik uste dut irizpide hori oso subjektiboa dela, eta ... ebaluazioa Udalaren irizpideen arabera izango da, edo hizkuntzaren normalizaziorako teknikariaren arabera, halako egintzetara bertaratzeko erabakitzen badu, eta beno, nik baditut horretan nire erreparatuak, ez puntuazioa dela medio, hobetu egin zitekeena, baina bai batean, bestean, hirugarren kasuistikan garatu den jardueraren mota erabakitzean.

Alkatea: nik uste dut errazena euskarazko egintzak eta gaztelaniazko egintzak zehaztea dela. Hori oso argi dago. Egia da zaila dela zehaztea euskararen erabilera handiagoa ala txikiagoa, elebidunak direnean. Baina tira, balioespen objektibo bat egiten saiatzeko modu bat izan zen.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo, nik uste dut diskriminazio positiboa euskararen aldera joan behar dela, izan ere, azken batean udalari honetan gutxi hitz egiten den hizkuntza da eta bultzatu egin behar da. Baina ez dugu ahantzi behar hemen gauden pertsona gehienok, jende andana, ez dugula euskaraz hitz egiten. Orduan, azken batean, nik bihar Udalerako onuragarria izan daitekeen jardueraren bat egin ahal izatea, eta nik soilik gaztelaniaz egiten dudalako zero puntu ematea, diskriminazioa da euskararekin batera ofiziala den hizkuntza baterako. Horrenbestez, zuk azken batean 6 puntu dituzu, eta oso ongi iruditzen zait, 3, eta besteri eman diezazkiokezu 1, 0,5 ala 2. Baina azken batean ahalegintzea gaztelania izan dadila diskriminatu beharreko hizkuntza uste dut ez dela... edo berezko izaeraren aurka doa hori, munduan gehien erabiltzen den hirugarren hizkuntza denean. Halaxe da. Eta ondoren esaten dizut, nik uler dezaket euskara bultzatzea eta 6 puntuen kontua, uler dezaket elebitasunaren kontua 3 punturekin. Ez dut ulertzen 0 puntu ematea soilik gaztelaniaz eginda dagoen jardueraren bati. Era berean ez dut ulertzen zein izango den pertsona, izan ere, noski norbaitek osorik euskaraz garatuko duen antzerki bat edo jardueraren bat baldin bada, oso erraza da esatea, berriro diotsut batzordea izan genuenean, egun batzuk lehenago egintza bat egon zen, eta automatikoki ikusi zen egintza hartan euskaraz "egun on" eta zer moduz gauden denok, besterik ez zuela esan. Orduan, azken batean, subjektiboa da, oso subjektiboa da puntuazioa emateko orduan eta 6 puntu nori, 3 puntu nori eta 0 puntu nori eman aitortzerakoan. Ni, pertsonalki, 0 ematearen aurka nago, nik 1, 0,5 edo 1,5 ipiniko nuke, baina ezin dugu gaztelania diskriminatu, eta are gutxiago Artziniegan, gehiengoak gaztelaniaz hitz egiten baitu egunerokotasunean euskara ia erabili ere egin gabe.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderditik (3);

Onartuta geratu da.

## **5.- LAB sindikatuaren mozioa, Tubos Reunidos taldeari buruzkoa.**

Alkateak mozioa irakurri du:

*“Artziniegako Udalari: Gaur egun Tubos Reunidos Taldeak 200 milioi eurotik gorako zorrak ditu, eta zor horien jatorriak Amurrio eta Trapagako plantetako jarduera eta ekoizpenarekin zerikusirik ez izan arren, langileoi azken hamar urtetan laugarren aldiz EEE bat aplikatzen hasi zatzazkigu.*

*Aurreko esperientziei so TUBOS Reunidos taldeko LANTALDEAK badakigu EEE hau ez dela taldeak duen finantza-arazoaren irtenbidea eta, horrenbestez, beste behin, diru publikoa eta gure langabezia erabiliko dute hitzarmenez ez duten lan arloko malgutasuna lortzeko, gure lan-baldintzak 16 hilabete luzez eskastuta.*

*Tubos Reunidos Aiarako eskualdean enplegu gehien sortzen duen enpresetako bat da, enpleguaz ari garenean, zuzeneko nahiz zeharkakoa ditugu hizpide, eta uste dugu industria-proiektu bat ez izateak plantaren eta enpleguen etorkizunaren inguruko egoera oso kezagarria izatea dakarrela.*

*Hartzen dituzten neurri guztiak beren kudeaketa tamalgarriaren kostua langileok ordaintzera bideratuta daude soilik eta guk, aitzitik, beren akziodunek sekula patrikan sartu behar ez zuten dirua plantetan inberti dezatela eskatzen dugu.*

*Lehen ondorioak dagoeneko pairatu dituzte EEE bat negoziatu eta ezartzeko prozesuan dauden kontratatako langileek.*

*Horregatik guztiagatik, LAB sindikatutik Artziniegako Udaleko Tokiko Korporaziora igortzen dugu hurrengo mozioa, eztabaidatu eta onar dadin:*

### **MOZIOA**

*Tubos Reunidos taldearen aldetik 16 hilabeteko iraupeneko EEE bat aplikatzeko egoeraren aurrean, Udal honetako Korporaziotik zera adierazten dugu:*

*- Gure gaitzespena Tubos Reunidos taldearen aldetiko EEE eta kontratei ipinitako EEE horien aurrean.*

*- Tubos Reunidos taldeari eskatzen diogu eta, bereziki, hartako akziodun nagusiei, Amurrioko plantaren etorkizunaren aldeko apustu egin dezatela eta aurkez dezatela*



*enpresa egoera honetatik ateratzeko akziodunen aldetik beharrezkoak diren inbertsio ekonomikoak jasotzen dituen bideragarritasun-plan bat”.*

Arkaitz San Jose Martinez: nik ohar bat soilik. Hau eskualdean eragina duten kasu ugarietan beste bat baino ez dela. Aiarako industriaren sektorea, kasu honetan ez baita Artziniegako planta bat, Aiarakoa baizik, baina Artziniegako langileengan baduena eragina, eta nahiko larria da kontua, Artziniegan ere baditugu eta beste kasu batzuk, eta uste dugu oparotasunean urte asko egon ondoren bada, apur bat proposamen honetan aipatzen dena da, emaitza positiboak egon direnean elkarren artean banatu dituzte, eta orain gauzak gaizki doazenean proposatzen duten irtenbidea EEE horien bidezkoa da, langileen kontura aurreztuz. Orduan guk mozio horren aldeko botoa emango dugu.

Alkatea: puntu honetan pentsatzen dut guztiok partekatzen dugula Tubos Reunidos taldearen egoeraren inguruko kezka, asko dira Tubos Reunidosen lan egiten duten Artziniegako pertsonak, eta eskualdean oso enpresa garrantzitsua da. Berriro diot, uste dut guztiok partekatzen dugula LAB sindikatuak helarazten digun kezka, baina esan gure taldeak abstentzioa emango duela, arrazoi bat dela medio. Izan ere, nahiago genuke proposamen hau enpresa batzordetik iritsi izan balitz, ez enpresa batzordean gutxiengoa den sindikatu baten aldetik LAB sindikatuak 3 ordezkari ditu, guztira 21 direlarik. Nahiago genuke batzordea izan balitz. Eta enpresa batzordearekin egotea ere gustatuko litzaiguke, eta enpresa batzordearekin egongo gara, izan ere, Amurrioko Udalak jakinarazi digunez, batzordearekin batera parte hartzeko foro bat sortzearen barruan, eskualdeko udal guztiak egon daitezela nahi dutela jakinarazi digute, egoeraren berri izateko, Tubos taldearen egoeraren berri, eta eskualdeko udalen eta batzordearen artean baterako ekintzak lantze aldera. Berriro diot, kezkarekin eta gaiaren mamiarekin bat etorritz, guk nahiago genuke batzordea izan balitz eta ez batzordearen barnean gutxiengoa den sindikatu bat mozioa aurkeztu duena.

Joseba Vivanco Retes: gauza bakar bat soilik. Berriro irakurtzea mozioak esaten duena, nork sinatzen duen eta nork ez begiratu gabe, eta EAJ taldeak zertan ematen duen abstentzioa:

*“- Gure gaitzespena Tubos Reunidos taldearen aldetiko EEE eta kontratei ipinitako EEE horien aurrean.*

*- Tubos Reunidos taldeari eskatzen diogu eta, bereziki, hartako akziodun nagusiei, Amurrioko plantaren etorkizunaren aldeko apustu egin dezatela eta aurkez dezatela enpresa egoera honetatik ateratzeko akziodunen aldetik beharrezkoak diren inbertsio ekonomikoak jasotzen dituen bideragarritasun-plan bat”.* Bi puntu horietan botoa emateko zalantzak badaude, LAB sindikatuak, enpresa batzordeak edo dena delakoak sinatuta ere, azal diezadatela.

Alkatea: berriro diot, esan dizut bat gatzela mozioaren kezkarekin eta mamiarekin, baina gutxiengoa duen sindikatu baten aldetik ez iristea nahiago genuke, 21etik 3 dira eta, batzordetik bertatik iristea nahiko genuke mozioaren aurkezpena, enpresa batzordetik, Tubos Reunidos taldearen langile guztiak ordezkatzeko baititu.



Joseba Elejalde Retes: nik uste dut eztabaida alde batera utzita, hots, bat den, bestea den edo guztiak diren, LAB sindikatua gutxiengoa bada, nik uste dut aurkeztu digun mozioa gutxi gorabehera enpresa batzordeak duela zenbait hilabete aurkeztu ziguna eta udalbatzan onartu genuena dela. Nik uste dut zentzugabekeria dela eztabaidatzea LAB den, CCOO den, UGT den edo ez den... Azken batean, kasu honetan LAB izan da, bihar langileen aldetik aurkez daiteke, eta uste dut ez dugula betekada izango, ez dugula bozkatzeko arazorik izango. Badirudi LAB sindikatuaren ekimen bat izateak min gehiago ematen digula edo min gutxiago ematen digula onartzeak edo ez onartzeak. Nik uste dut, azken batean, arazoa hor dagoela. EAJ taldeak zoritxarrez ez ditu bere lanak egiten eta dieselaren gaiarekin ere ikusten ari gara hori. Dieselaren igoera bat onartu dugu maila nazionalen etsipenaren bidetik eramango gaituen gizon baten aurrekontuak onartuz, eta hori Euskal Herrian eta batez ere, Gasteizen, ditugun ibilgailuen planten kaltetan da. Eta gai honekin berdinetan gaude. Aiara da kaltetu nagusia, Gasteizen maizen ahazten dena da, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Eta gure enpresak, gehienak siderurgiakoak, ikusten ari dira beren akziodunek iguripen hobeak izango dituztela eta irabazi gehiago beren ekoizpenak gure lurraldetik kanpora atereaz. Eta hori da azken batean borrokatu behar dena eta landu behar dena Eusko Jaurlaritzak eta alderdiek lan egin dezaten enpresa horiek, azken batean, beren enpresak hemen Aiara eta Euskal Herrian mantentzen jarrai dezaten, eta ez ditzaten enpresa horiek beste herrialde batzuetara eraman non ustez, eta ustez diot, etekin handiagoak dituzten. Hori da arazoa.

Alkatea: berriro diot, Tubos taldearen egoeraren inguruko kezka partekatzen dugula, baina hobe izango litzatekeela batzordetik iritsi izan balitz, eta Tubos taldearen enpresa batzordearekin bilkurak izango ditugu, hori baita Tubos Reunidos taldeko langile guztiak ordezkatzeko dituen organoa, guztiak.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan EAJ alderditik (4);

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



Maria Lorente Burgos osoko bilkuratik irten da 09:45ean.

## **6.- 2018ko laugarren hiruhilekoko “ordainketarako batez besteko epealdia” txostenaren berri ematea.**

Alkatea: ordaintzeko batez besteko epea 12,58 egunean dago.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **7.- Udalbatzari 2018ko berankortasun-txostenaren berri ematea.**

Alkatea: hori duzue txostena, ezer galdetu nahi baduzue.

Ascensio Hormazabal Meabe: ez da ezer ikusten. Ezer argitu nahi baduzue pasa bulegotik eta ordenagailuan ikusten da.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **8.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.**

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, Dekretu hauek direla aipatu du: 2018ko 227 Dekretua, azken saioaren zain, ondoren 2018ko 230-292 bitartekoak, eta 2019ko 1-29 bitartekoak.

Alkatea: hor dituzue dekretuak.

Joseba Elejalde Ribacoba: 247 zenbakidun dekretuan Iñigo, Artziniegako Etnografia Museoan egin diren lan batzuei buruzkoan, ez da agertzen, edo behintzat nik ez dut ikusi, museoko atearen lixatu eta bernizatzea.

Alkatea: bada esleipena sinatu egin dudalakoan nago, zin egingo nuke.





Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut ikusi behintzat.

Alkatea: agian oraindik ez du faktura aurkeztu.

Joseba Elejalde Ribacoba: burutu izan diren lanen kontura dator. Nik ez dakit orain eztabaidatu edo udal kudeaketaren kontrolean eztabaidatu. Nahi duzun moduan.

Alkatea: ez, ez, ez dakit ordea. Jesusi lan hori zein egoeratan dagoen galdetzeagatik da. Nik uste dut esleituta dagoela eta faktura dagoela.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, lana burutzeko moduaz ari naiz, lana burutu zen baldintzei buruz, Artadiko langilean museoan zerbitzua ematen zer-nola zeuden enpresa hori mantenu-, lixatze-, pintatze-lanak eta arotzeriari zegozkion gainerakoak egiten zituen bitartean, lotsagarria baita, lotsagarria. Argazkiak lotsagarriak dira.

Alkatea: beno, dekretuez hitz egiten ari gara.

Joseba Elejalde Ribacoba: esan dizut ordea, oraingo esango dizut edo ondoren esango dizut. Nahi baduzu gerorako utziko dizut.

Alkatea: dekretuen inguruan ezer galdetu nahi baldin baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, guk bai.

Alkatea: nahi baduzue rapsodia baten moduan egin dezakegu, dena segidan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez horregatik esan dizut ez dudala ikusi, nire lehen galdera zen dekretua eginda ote zegoen eta zenbateko kostua zuen. Ez baitut ikusi, nik pertsonalki ez dut ikusi. Ez dakit beste inork ikusi duen, baina nik, pertsonalki, ez dut ikusi.

Arkaitz San Jose Martinez: guk 230 eta 231 dekretuei dagokienez, Geltoki Plazan eta Hiriko Atean oztopo-zutoinak eta mutiloiak erosi eta instalatzekoak, hori zeri buruzkoa da? Hiri altzaria erosteari dagokio soilik?

Alkatea: hiri altzaria erostea.

Arkaitz San Jose Martinez: baina ez dira ipini.

Alkatea: ez, ez.

Arkaitz San Jose Martinez: ipintzen du "eta instalazioa". Eta zergatik aurreikusten da aldatzea edo zergatik da?

Alkatea: udal brigadarekin egingo dugu. Oztopo-zutoin nagusiak dira eta ondoren mutiloi sorta bat ere hartu dugu gaizki daudenak aldatzen joateko.

Arkaitz San Jose Martinez: Mutiloiak eta piboteak gauza bera dira ala horiek soilik dira daudenak...?

Alkatea: mutiloiak Hiriko Atean daudenak dira eta zutoin-oztopoak beheran daudenak dira, eta igo eta jaitsi egiten direnak.



Arkaitz San Jose Martinez: ados, orduan gero galdetuko dun hirigunean falta diren pibote ugarien inguruan. Eta, gero, 291. zenbakidun dekretuari dagokionez, zeharbideko autobus-geralekuaren zonaldea hobetzeko obrei buruzkoan, likidazioa onartzen duena lanak amaitutzat jotzen dituelako, plaza horrela geratuko al da?, hau da, geralekuaren obra oso ongi, baina uste dut oro har aipatzen den zerbait dela, ez dago ongi amaituta, ipini diren hesiei dagokienez, irekita geratu den ateari dagokionez, kontuan izanik...

Alkatea: ez da horrela geratuko. Egia da hesia ipini zela, eta egiaz burdin-sareren bat ipintzeko premia ikusi da baloiek ihes egin ez dezaten eta haurrak ez daitezen hor geratu... Behin-behinekoz ipini den ateari dagokionez, hasieran aurreikusten zena aurretiaz zegoena ipintzea zen baina ez du balio, orduan berri bat aginduko da.

Joseba Vivanco Retes: nik banuen beste zerbait. Ez dakit oraintxe bertan zein den dekretuaren zenbakia, baina tira, Udaleko garbiketako langileetako baten bajarekin lotuta dago. Ez dugu ulertzen nola urtarrilaren 7an, dekretuan adierazten denez, jakinarazten den pertsona horren baja, Alkateak ez zuen Lanbiden eskatu hura ordezkatzeko pertsona bat urtarrilaren 15era arte, hots, 8 egun pasa dira, non garbiketako pertsonak bi ziren eta suposatzen da batek, nolabait esateagatik, garbiketaren fardela beregain hartu behar izan zuela, eta pertsona berria ez zen lanean hasi hilaren 18ra arte. Hots, 11 egunetan pertsona bakarra aritu da ikastetxea garbitzeko, udaletxea garbitzeko, edo zegokiona garbitzeko lanean, bera bakarrik. Egon liteke atzerapen bat igortzean, hautatzean, edo lan-poltsa ez dagoelako. Ez duguna ulertzen da hilaren 7tik, orduan entregatzen baita papera Udalean, eta suposa dezaket hilaren 6an pertsona horrek Udalari baja hartuko zuela jakinarazi ziola, hurrengo egunean entregatu behar izan zuelarik, hilaren 15era arte Lanbideri ez eskatzea pertsonen izenik. Gure ustez, hilaren 15a baino askoz lehenago egin zitekeen. Horrenbestez, 11 egunean zehar pertsona bakarra aritu da garbiketa-lanetan.

Alkatea: bada bai, egia da, askoz lehenago egin genezakeen, baina ez zen hala egin. Inguruabar asko eman ziren atzera zedin. Eta Lanbideri eskaera egiteko uneari dagokionez, laneratzeko, ezin dizut esan zenbat denbora igaro zen...

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, hiru egun Lanbideri eskaera egin eta lanean hasten den arte. Arreta ematen diguna da hilaren 7tik 15era bitartean ez eskatzea Lanbideri ordezkapena egin ahal izateko pertsonen izenak. Hots, azken batean 8 egun dira ia, non pertsona bakarra aritu den lan hori egiten. Eta udaletxeko bajen gaiarekin berriki aipatu dugun arazo bat da. Baja hartzen duten pertsonak eta betetzen ez diren bajak. Eta badakigu dagoeneko Udaleko langileek duten lan-karga zenbatekoa den, hori areagotu egiten delarik pertsona bakarra dagoenean, edozein delarik ere saila, eta baja hartu behar duenean, orduan.

Alkatea: baietz esaten dizut ordea, hainbat inguruabar zirela medio atzeratu zela, Lanbidera egiteko eskaera, eta behin eskaera eginda ahalik eta azkarren ebazteko ahalegina egin zen.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (3); Joseba



Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **9.- Udal kudeaketaren kontrola.**

Alkatea: puntu honetan esan oraindik onartzeke dugula SR-1 obren plegua, bi xehetasunen zain gaudela, bat obrako buru bat egoteari buruzkoa eta, ondoren, beste enpresa bati guztira azpikontratatu ahal zaion obraren portzentajea, baina tira, dagoeneko zehaztuta dugu hori, % 70ekoa da, eta arreta ematea da, Gobernu Batzordean egon ez bazen ere, izan ere, koordinazio-bilkura bat izan genuen, beno bada jadanik argi utzi genuen eta egia esatera eskatu genuena zen gaur plegua izatea Gobernu Batzordean onartzeko gai-zerrendatik kanpo besterik ez bazen, eta horrela lizitazioa atera ahal izateko. Lehenbailehen izatea espero dugu. Eta beno, iaztik genituen zenbait ekintza, jadanik abiatuta genituenak, berrikusi egin behar genituenak, esate baterako, luminarien aldaketa, bada abenduaren 31n ez zen esleitu, eta beraz orain 2018ko likidazioaren zain egon beharrean gaude udalaren berezko ekarpena gaineratu eta plegua abiatu ahal izateko. Dagoeneko 23.000 euroko diru-laguntza bat dugu. Proiektua gutxi gorabehera 100.000 euroen bueltan egon daiteke, eta aurten energiaren Euskal Erakundearen laguntzetara jotzen saiatuko gara luminariak aldatzeko, eta modu horretan prozedura guztiarekin amaituko dugu.

- Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Bat LAB sindikatuaren mozioaren inguruan lehen eztabaidatu dugunaren harira eta, beno, eta apur bat esku-eskura utzi dit lehen Alkateak aurreikusita duenari buruz aipatu duelarik, eskualde barnean, edo baita Udal modura ere, Tubos Reunidos enpresako batzordearekin elkartzeari dagokionez. Niri gustatuko litzaidake galdetzea ea gobernu-taldetik inoiz interesik agertu ote duten Artadiko langileen egoeraren inguruan. Hots, haiekin harremanetan ipini ote diren denbora honetan guztian zehar zein egoeratan zeuden edo zein egoeratan geratzen ziren galdetzeko. Gustatuko litzaidake jakitea.

Alkatea: ez.

Joseba Vivanco Retes: beste galdera bat ere egin nahi nuen, Museoaren gaiarekin, hil hauetan askotan agertzen dena, ea gobernu-taldetik norbait, legealdi honetan zehar, bertaratu ote den museoak aldizka egiten dituen asanbladaren batera non Udalak ordezkari bat duen.

Alkatea: koordinazio-bilkurak izan ditugu haiekin. Haiekin hitz egin dugu.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, aldizka egiten diren asanbladetara, non Udalak beti ordezkari bat duen.

Alkatea: asanbladetara ez gara joaten. Ez dakit deialdiak iristen ote diren, ez dakit.

Joseba Vivanco Retes: Baina arrazoiren bat dago ez bertaratzeko?

Alkatea: ez gara joaten dagoeneko koordinazio-bilkurak baditugulako. Egon gara haiekin noizbait.



Joseba Vivanco Retes: baina ez da asanbladetara joaten.

Alkatea: ez, asanbladetara ez gara joaten. Ez gara beste elkarte batzuen asanbladetara joaten.

Joseba Vivanco Retes: nik elkarte honen inguruan galdegin dut. Ez dut beste elkarte batzuen inguruan galdetu.

Alkatea: ez, ez honen inguruan ez besteen inguruan.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina nik honen inguruan galdegin dut zehazki. Izan ere, gero hitz egiten badugu egoerez eta abar, baina leku bat dugu han eta Udal modura ez gara joaten. Gauza bera, esate baterako, ikastetxeko organoetara jotzen badugu, pentsatzen dut maiztasunez, kasu honetan ziurrenik on litzateke galdetzea Arteari noiz izan zen Udaleko norbait asanblada batean izan zen azken aldia.

- Joseba Vivanco Retes: idatzi bat dago, gustatuko litzaidake erantzuna bidali ote den jakitea, nik ez dut ikusi behintzat, bada azaroaren 5eko idatzi bat, non galdetzen zaion udalari, beno, hertsatuki eskatzen zaio, ea zer egingo duen Dehesako bidearen mugaketarekin, duela bi urte amaitu zena, mugaketa finkatu zen, baina oraindik ez da esku-hartzerik burutu. Eta bada azaroaren 5eko idatzi bat, non Udalari hertsatuki eskatzen zaion esku har dezan eta mugaketa gauza dezan. Ez dakit zerbait egiteko asmorik dagoen, aurtengo aurrekontu-proiektuaren zirriborroan ez dut uste ezer dagoenik horren inguruan, baina jakin azaroaren 5eko idatzi horri Udalak erantzuna eman ote dion.

Alkatea: bada, oraintxe bertan ez dut gogoan. Ez dakit, ezin dizut esan. Espedientea begiratuko dut, baina, halaxe da, hor mugaketa ia amaituta dago. Mugarría ipintzea faltako litzateke, baina apur bat buruz esaten ari natzaizu.

Joseba Vivanco Retes: kontua da azaroaren 5ekoa dela, eta iruditzen zait ez zaiola erantzunik eman. Beraz, mugaketa gauzatzearen edo ez gauzatzearen inguruko aurreikuspena egotetik harago, derrigorrez egin behar dugularik nire ustez, galdera eta idatzi horiek sartzen dituen jendeari erantzutea da kontua.

- Joseba Vivanco Retes: azkenik, eskaera bat besterik gabe, izan ere, eskualdeko Ur Kontsorzioaren Asanbladaren hurrengo bilkuran, non Udal modura bertaraten baita, bada proposa dadila eskualdeko Ur Kontsorzioak, pentsatzen dut, asanbladara joaten diren udaletako ordezkari guztien artean banatzeko eta Gabonetako oparitxo modura, egiten den Gabonetako sorta eta xehetasunen partida, bada bide batez, Artziniegako Udaletik egiteari utzi zitzaion aspaldidanik, eta Aiarako Kuadrillan ez zait iruditzen egiten denik, behintzat hertsatuki eskatzea Ur Kontsorzioan ere egiteari uzteko, eta apur bat eredu eman dezatela. Azken batean, gure gainerik dauden instantziak dira, guztiok, udal bakoitzak, ordaintzen ari garena, eta deigarria da ikustea onartzen diren dekretuetan Gabonetako sortak direla 1.500 eurotan, bertaraten diren pertsonen artean banatzeko. Huskeria da, ezer gutxi, baina azken batean goiko edo oso goiko instantzietan huskeria izaten amaitzen duten jardunak edo azturak dira. Eta badakigu nola amaitzen duten administrazio kontseilu askok eta gauza askok. Berrit diot, huskeria da, baina azturak edo egiteko moduak dira. Eta guk hertsatuki eskatuko genuke Asanblada egiten den hurrengo bilkuran proposa zedila, Artziniegako Udalaren aldetik behintzat, gauza horiek egiten uztea hobe dela.



Alkatea: bai, ados egon naiteke zurekin. Egia ez dela hori kentzen ari, eta nire kasuan niri zegokidan sorta dohaintzan eman nuen, ez bainuen egoki ikusten. Eta ez zain proposamen txarra iruditzen. Modu berean, nire kasuan, Kontsortziora joategatik dagozkion dietak nahiz Kuadrillara bertaratzeagatik dagozkion dietak, legealdi honetan Udalaren kontuan sartzen dira zuzenean. Nire ustez dedikazio eskusiboa baldin baduzu, eta nire kasuan dedikazio eskusiboa dut, ez dut aparteko beste dietarik jaso behar, eta horiek Udalaren partidan sartzen dira. Nire kasuan diot.

Joseba Vivanco Retes: ziurrenera eztabaida genezake filosofia hori eta beste zenbait gauza.. Baina tira, ez da hori eztabaida.

- Unai Gotxi Kastrexana: beno, nik gauza bat bakarrik. Pentsan ikusi dugu, zonaldeko egunkari batean, Santa Kolomako auzotar bat kexu azaldu dela bide baten konponketaren ondotik bere lurretan harriak erori direlako. Era berean zer egingo den esanez erantzuten duzula ikusten dugu. Kasu honetan ez dut galdetuko noiz egingo den eta zergatik atzeratu den, baizik eta ba ote zegoen gertaera honen berri.

Alkatea: berarekin izan ginen obraren hasieran, eta aparejadorearekin izan nintzen obrak bisitatzen egunkaririk auzotar bat kexatzen joan zela esanez deitu baino hiru egun lehenago. Orduan obra ikusten aritu ginenean dagoeneko esan zen harri horiek kendu egin behar zirela, kofratuaren soberakoa zela eta hori ongi utzi behar dela, eta partzela eta egin den bidea hobeto bateratu behar direla.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta orain galdera bat dut buruan, zer-nolako etsipenera iritsi behar du Artziniegako jendeak Udal honek jaramon egin diezaion hedabideetara joan beharrik gabe?

Alkatea: beno, esaten ari natzaizu aurretik izan ginela.

Unai Gotxi Kastrexana: eta berarekin ez zen hitz egin, ikusten denaren arabera. Izan ere, Udalaren eta auzotarraren artean komunikaziorako bide bat izan balitz, ziurrenera auzotarrak ez zukeen hedabidera joan beharrik izango Udala salatzen.

Alkatea: bada, komunikaziorako bide bat egon da. Lehen harreman bat, ni izan nintzen berarekin, eta ondoren teknikarien taldea elkartu da berarekin.

Unai Gotxi Kastrexana: ikusten denez, ez da aski.

Alkatea: asebetetze-maila agian ez da egokia izan eta hedabideetara jotzea erabaki du.

Unai Gotxi Kastrexana: Artziniegako jendeak babak eltzetik ateratzeko hedabideetara jo behar izatea Udal honek jaramon egin diezaion, larria da gero.

Alkatea: Udala jaramon egiten ari zitzaien dagoeneko.

Unai Gotxi Kastrexana: bada, esango didazu.

- Joseba Elejalde Ribacoba: apur bat lehen esaten ari nintzenari berriro helduz, museoaren irekiera egiten duten edo, gure zoritxarrerako, egiten zuten langileen lan-baldintzen



gaiari berriro helduz, bada ni elkartu naiz haiekin, oso argi utzi nahi dut, langileekin izan naiz, zen egoeratan zeuden jakiteaz kezkatu naiz, ahal izan dudanean laguntzen saiatu naiz, baina ez da asko izan. Baina tira, gaiari berriro helduz, nik ulertzen ez dudana da hemen, Udal honetan, arkitekto bat izanda, aparejadore bat, Artziniegako Etnografia Museoan zenbait obra onartzea, hots, museoaren kanpoaldeko arotzeria guztiaren mantenua, lixatzea eta pintaketa. Enpresa horri inork ez behartzea lixatzeko makinek hauts guztiak xurgatu edo hartzeko tresna bat izan dezaten. Langileak beren lana egiten ari dira, eta museoa erakusten ari dira, gizon horiek mantenu-lan hori burutzen ari diren aldi berean, hauts guztiari aurre eginez, osasungaitzak diren baldintzetan, izan ere, Udal honetatik ez da gutxieneko bitarteko batzuk dituen enpresa bat kontratatzeko gaitasunik izan, hemen Norberaren Babeserako Ekipamendu izendatzen dira, lana burutu ahal izateko gutxieneko baliabideak, eta kontratatutako enpresak burutzen duen lana, eta Artadi burutzen ari zen lana. Artadi kexatu egin baita enkargatuaren aurrean, pentsatzen dut, lixatzea burutzen ari zen enpresakoa. Enkargatuak esan diola haiek beren lana bertatik bertara egiten dutela, ez dutela leihotxo bat mugituko bigarren solairutik kanpoaldera, atari liluragarria dugula, hori ez baitago kontratatuta. Udal honen zeregina obra bat zein baldintzetan garatzen den ikustea da. Ez da bidezkoa nik arotzeria-enpresa bat kontratatzea, udal eraikin bat lixatzera joatea, museo modura erabiltzen dena, non lau pertsona ari diren lanean, ez behartzea haiei xurgatzeko tresna bat ipintzera museo osoan zehar bi zentimetroko hauts-geruza bat ez uzteko, bertan beren lana egiten ari diren langileak, museoa erakusteko beren eguneroko lana egiten ari direnak, ez dezaten hauts hori guztiori xurgatu, hartu eta zurrupatu, ondoren museoa garbitzen duten langileek, garbiketari bi ordu eman beharrean, zazpi ordu eman ez ditzaten, edo zortzi edo hamasei. Ondoren kexatu egiten gara eta. Kexatu egiten gara garestia delako, merkea delako edo pasa ziguten aurrekontua ematen diguten zerbitzuaren araberakoa delako edo ez delako. Nire kexa zera da, Udal honetatik funtsezkoena dena egiteari utzi zaiola, batez ere zerbitzu teknikoetatik, hots, Artziniegako Etnografia Museoako langileen osasuna lehenestea. Izan ere, ni beste enpresako enpresaburua baldin banaiz eta nire langileari maskaratxo bat ematen ez badiot nire arazoa izango da eta baita Udalarena ere, izan ere, NBE ekipamenduak, aurretiaz aipatu dudana moduan, derrigorrezkoak dira. Ondoren gai honen inguruan era berean, Ascen hemen dagoenez, agian ez du astirik izan, nik urtarrilaren 18an idatzi bat sartu nuen eskatuz idatz zedila txosten bat Ascenek istripua izan zuen egunean mahai gainean ipintzen saiatu ginen akordio-proposamenaren bideragarritasunari buruz. Ez zait erantzunik eman, pentsatzen dut ez zela horretarako astirik izango. Mesedez eskatzen dut lehenbailehen erantzutea, izan ere, Josebak ongi esan duen moduan, une honetan langileen eta enpresaren egoera den bezalakoa da, museoak itxita jarraitzen du, Udal honetatik ez dugu urrats bakarra eman egoera iraul dadin saiatu eta museo berritoki ireki dadin, ireki behar den baldintzetan, baina tira, eta atzeratzen jarraitzen dugu pixkanaka. Eta pixkanaka kontua da 2015eko gauzak gauzatzeke daudela, 2014ko gauzak gauzatzeke daudela, eta honekin iazko otsailetik gabiltza, museo ixtea lortu dugu inolako akordio eta irtenbiderik erdietsi gabe.

Alkatea: esan puntu horri dagokionez, astearte honetan bilkura bat dugula Foru Aldundiarekin.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, niri oso ongi iruditzen zait bilkura bat izan dezazula Aldundiarekin. Arazoa akordioetara iristeko bilkura bat izatea da, Artea Etnografia Elkartearekin, eta Artadi enpresarekin, hura baita Elkarteari zerbitzua ematen diona. Harekin erdietsi behar dugu akordio bat Museoaren lehenbailehen irekitzea lortzeko. Aldundiarekin bilkura bat izango duzula? Pozten naiz. Baina Elkartearekin izan behar duzu bilkura bat. Eta ez egunero Elkartearekin joatea,

Alkatea: guk bilkura bat baino gehiago egin ditugu Artea Elkartearekin...



Joseba Elejalde Ribacoba: harekin iritsi behar zara akordio batera...

Alkatea: eta izan dugu eta ez gara akordio batera iritsi. Bilkura hauetan guztietan.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez dugu izan itxi egin garelako, erabat itxi zarete, eta haiekin gauden bakoitzean... Begira gauza bat esango dizut, joan den egunean, azken bilkuran, Nieves bertan zela, Nieves joan zen arte eztabaidak izan ziren ozenagoak eta apalagoak, baina eztabaidak izan ziren maila guztietan. Nieves joan zen eta aizu gai izan ginen, bertan geunden lau politikariak, teknikaririk gabe, akordio batera iristeko, edo akordio bat planteatzeko, edo irtenbide bat edo proposamen bat, deitu nahi duzun moduan. Hiru egun beranduago nik aurkeztu nuena, txosten juridikorik idatzi gabe. Badirudi teknikaria edo aholkulari juridikoa baldin badago tematu egiten garela, eta joaten bada, baretu egiten gara. Orduan negoziatorako tarteko puntu bat adostu edo izan dezakegu. Ez dakit azken batean pertsona horiek guztiak soberan ote dauden, eta politikariak elkartu beharko ote garen, eta ondoren esan dudan moduan, instantzia bat egin adostu dugunak oinarri juridikorik duen ala ez ikusteko. Izan ere, argi dago elkartu eta Nieves dagoen bakoitzean.

Alkatea: hori da ordea arazoa.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, ez, arazoa da ez garela gai inolako akordioetara iristeko. Behin baino gehiagotan esan dizut. Nik ulertu ezin dudana zera da, Udalak, Artea Etnografia Museoak planteatutako lehen bilkuran, non igoera bat barneratzen zuen hitzarmen baten sinaduraren arazoak planteatzen baitzen, ez dut esango zein, izan zitekeen % 5, % 7, 37 ala 44. Udal honetatik, gobernu-taldetik, erantzuten diogu, minutu baten faltan, eskura txosten juridiko bat emanez erantzuten zaio. Bada zuk uste baduzu hori dela akordio batera, negoziatio batera, iristeko modua, zuk uste baduzu hori dela zerbait negoziatzen hasten esertzeko moduan, bada okerreko liburua irakurriko zenuen, izan ere, gerraren artea izango da, ez negoziatioaren artea, Iñigo. Ni sekula ezin naiteke eser pertsona batekin solasera, akordio batera iristera, eta automatikoki maximoen bat aurkeztu. Ez, nirea azaldu beharko diot, berak azaltzen duena entzun beharko dut, eta akordio batera iristen saiatu. Bideragarria, hobetzeko modukoa, guztiok nahi baitugu hitzarmena hobetzea, kontratua hobetzea, Artziniegako Etnografia Museoarekin lotuta dagoen guztian, baina arazoa zera da, lehen egunetik, eta zuk badakizu, zu izan baitzinen eman zeniona, eta talde politikoei bi ordu lehenago bidali zenigun posta elektronikoz, bi ordu lehenago, bospasei orri irakurtzeko. Hori lehendabizi, bigarrenik komodatu-kontratuarekin. Nik osoko bilkura honetan errepikatuko dut ahaztu egiten zaigula baitirudi, batzordean esan nizan, "zuk deituko duzu edo nik deituko dut", "ez, nik deituko dut". Artea Etnografia Museoarekin bilkuran bertaratu ginen eta ezer igorri gabe zeunden. Komodatu-kontratua eskura eman genien berriz ere. Zuk nola nahi duzu beste aldeak, kasu honetan Artea Etnografia Museoak, solas dezala? Ezinezkoa da. Zuk haiekin solas egiten ez baduzu, eta zuk proposatu nahi duzuna aztertzeko beta eta modurik ematen ez baduzu, bada azkenik arazo bat dugu. Eta zein da arazoa? Urtebete igaro dugula soldataren igoeraren arazoa konpondu gabe, eta une honetan museoa itxita daukagu. Horrek dituen ondorioekin, ez enpresarentzat soilik, baita Udal honentzat ere. Aiarako eskualde osorako arlo turistikoari so, eta Udal honetako auzotarrentzat alderdi ekonomikoari so. Izan ere, azpimarratu nahi dut Artea Etnografia Museoak museoa



irekitzen jarraitzen duela dagoeneko bisita kontratatuta duten guztientzat. Eta duela hiru aste edo bi hirurogei pertsona izan ziren, udalerrri honetako jatetxe batean bazkaldu zutenak. Horrekin esan nahi dugu guk gastua ikusten baldin badugu, nik inbertsio izendatzen dudana, museoaren gastua kontu erraldoi modura ikusten baldin badugu, ikusi behar duguna, edo bideratu, zera da, industria-mailan zer-nolako etekina dugun. Eta hori hemen inork ez du planteatu. Gobernu-taldetik behintzat, inork. Gastuan erreparatu zenuten soilik. 68.000, 78.000 ote diren, nik 70 ipintzen ditut, edo 86.000 diren. Inork ez du erreparatu Artziniegako Etnografia Museoak herri honi uzten dizkion mozkinetan.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, badut beste galdera bat.

Inmaculada Vivanco Retes: nik gauza bat ñabartu nahi dut. Aipatu duzun bilkura horretara, non bertan izan ginen eta bertan zegoen Nieves Martin, aholkulari juridikoa, beste bilkura batean egongo ginen nonbait, izan ere, nik dakidala ez genuen eztabaidatu eta ez ginen oihuka egon eta ondoren akordio bat erdietsi genuen. Zenbait iritzi eman genituen guztiok, eta uste dut, ni sentipen horrekin geratu nintzen behintzat, guztiok ontzat ematen genuela irtenbide bat bilatu behar dela, eta pentsatzen eta gauzak esaten eta kontuak proposatzen aritu ginen, baina babesik ez genuenez eta ez genekienez horrek juridikoki edo legalki tokirik zuen ala ez, ezin izan genuen irtenbide zehatzik erdietsi. Baina zuk planteatu duzuna, eztabaidan eta oihuka aritu ginela eta ondoren akordio bat erdietsi genuen, esaten dizut kontakizunaren ikuspegia...

Joseba Elejalde Ribacoba: kontakizunaren zure pertzepzioa ona iruditzen zait, eta Joseba Vivancok agian beste bat izango du, eta Arkaitzek esan zidan joan zenean dena eginda zegoela pentsatzen zuela.

Arkaitz San Jose Martinez: tira, nik hamaiketan alde egin nuen eta Iñigo zera esaten ari zen "beno, Ezohiko Gobernu Batzordea onartuko dugu eta museoaren ordainketa onartuko dugu". Eta goizeko hamaiketan alde egin nuen Alkatearen hitz horiekin, Ezohiko Gobernu Batzordea deituko dugu eta gaur egun udal aurrekontuan dagoen zenbatekoa Museoari ordaindu edo eskualdatzea onartuko dugu. Esaldi horrekin, eta nik esan nuen "bada, eginda dago" eta banoa. Eta ordu bi eta erdietan Josebak deitu zidan esanez ezetz, ezer ez. Ez zen akordio bat soilik erdietsi, hainbat akordio erdietsi ziren, gertatzen dena de nire ustez politikoa den arazo bati irtenbide juridikoak bilatzeko ahalegina egiten denean, hau da, zer den museoa, zer suposatzen duen museoak eta zeren alde egin behar den. Ondoren juridikoki kokatzearena askotan egin dugu, bilatuko da. Orain arte bazuen bere kokapena, ez du zertan bereziki ezberdina izan behar aurrerantzean. Izan ere, orain arte legezketasuna zegoen horretan betetzen bazen, zenbateko kontua da. Baina jakina, nik uste dut ez dela soilik zenbateko kontua, bestela ez baitut ulertzen, ez dut ulertzen edozein aitzakiak, nik ikusten dan eran behintzat, balio dezakeenik esateko, ez, hau ezin liteke izan, berriro planteatu beharrean gaude. Izan ere, Josebak esan duen moduan, otsailetik gaude horrela.

Alkatea: beno, Joseba, zurekin askotan aipatu dut sentikortasun kontua dela. Txostena entregatzen denean jaso egiten delako da, eta une horretan entregatzen da





eta kito, ez dago besterik. Udalbatzan entregatu ez baldin bazen, udalbatzara eraman zena proposamen bat zen, ez zen akordio bat, asanbladako proposamenari, erantzuna, udalbatzara erantzuteko organoa. Ni ez naiz inor Asanbladari erantzuteko. Baina tira, sentikortasun kontua da, eta esaten duzuenari dagokionez, noski Udalak museoa itxi ez dezan borondatea, uste dut guztiok dugula hori. Baina, jakina, egoera normalizatu egin behar da, eta modu egokian egin behar da. Aurten ezin izan da inolako akordiorik erdietsi gauzak erraztu zitzaketen kudeaketa moduak zeudelako, baina ezin ezinezkoa izan da, eta tira, asteartean bilkura bat dugu.

Arkaitz San Jose Martinez: astearteko bilkura, hasiera batean, museoaren bideragarritasunaz hitz egiteko da. Noski apur bat Josebak esaten zuena, zu arrazoi ekonomikoetara mugatzen baldin bazara, esango dizut nik bideragarria, proiektu itxi modura, bakar eta soil modura, ez dela.

Alkatea: ez, hori badakit.

Arkaitz San Jose Martinez:noski, orduan osagai gehiago sartu behar dira eta, horrez gain, nire ustez, txosten horretan esaten denari zain ez egotea. Edo, zain gauden bitartean, museo irekita egon dadila bermatzea. Baina, noski, gero zain baldin bagaude, beste Diputatu baten aurrean ere esan izan da, gertatzen dena zera da, jakina, azken bilkuran jadanik esan zenidanez esaten denak ez duela balio, soilik idatziz dagoenak balio duela, baina tira, Turismoko Diputatuaren aurrean esan izan da aurten Udalak bermatuko zuela nahiko diru egongo zela, beste erakundeen babesari izan gabe ere, museo itxi ez zedin. Bada...

Alkatea: gauza bat da dirua aurrekontu-partidan egotea, eta beste gauza bat Artea eskualdatu ahal izatea. Gauza ezberdinak dira. Eta horrek zer esan nahi du? Borondatea egon daitekeela, baina gero gauzak normalizatu egin behar dira.

Arkaitz San Jose Martinez: borondaterik balego, nire ustez, diru hori transferituta legoke dagoeneko, eta museo ez litzateke itxiko.

Alkatea: ez.

Joseba Elejalde Ribacoba: begira Iñigo, berriki 17.000 eurotik gora onartu dugu, errepide baten egikaritze baten ondorio izan den igoera bati dagozkionak. Arazoren bat izan al da? Josebak galdera bat egin dizu, zein ziren partida edo gastu hori areagotu zuten lanak? Bada, jakina, Aldundia akordio batera iritsi zen kontratatutako enpresarekin, partida berrien erreklamazio bat egin dizute, eta zenbateko berri bat eman du. Eta kito. Eta hau gauza bera da, hots, arazo bat baldin badago, hitzarmen bat sinatu delako, eta hitzarmen horretan soldata igoera bat baldin badago, onar dezagun udalbatza honetan igoera hori ordaindu egin behar dela. Hots, Udalak, administrazioak, hitzarmenean sinatuta dagoena baino gutxiago ordaintzen du. Txundigarria da. Beste gauza bat da esatea, zenbat balio du zerbitzuak? Hor litekeena da gure gorabeherak izatea. Batzuek esatea 60, beste batzuek 70 eta besteek 85.

Alkatea: hori da ez dakiguna.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, Iñigo, baina zuk ez badakizu, ez dakigu zergatik. Zu kezkatu al zara?



Alkatea: eta Udalak diru laguntza ematen baldin badu, Udalak partida baten kontura eman behar du diru-laguntza e, ezin du esan "ez, zu lasai, zu lasai Udala beti egongo da atzean eta, gertatzen dena gertatuta ere". Eta hori da egin ezin dena.

Joseba Elejalde Ribacoba: erabat ados zurekin.

Alkatea: borondate asko egonik ere, hori ezin da egin.

Joseba Elejalde Ribacoba: hamalau urte daramagu borondatearekin gaurdaino. Hamalau urte ezer esan gabe, eta ia aitzakiarik ipini gabe, Ascen salbuetsita. Aitzakiarik ipini gabe. Eta nik esango dizut, esango didazu honek ez duela balio, baina ni aholkularitza batera joan naiz eta txosten bat egiteko eskatu diet, eta helaraziko dizut, izan ere, gaur goizean pasa didate, eta adierazten du 4. taldea eta 3. taldea. Nik jarriko banitu bi monitore 4. taldean eta beste bi 3. taldean, urteko zenbatekoa, guztiarekin, 71.539,24 eurokoa da, gehi BEZ. 78.693,16 euroz ari gara hitz egiten. Zenbakiak baino ez dira. Langile guztiak 3. taldean ipintzen baditut 69.163,55 euroko zenbatekoa ateratzen zait, gehi BEZ zergari dagozkion 6.916,35 euro, guztira, 76.079,70 euro. Artadi enpresak eskatzen zituen 78 horietatik oso urrun ez, edo nik azken bilkuran proposatutako 76 horietatik. Oraingoan ni izan naiz aholkularitza batera, aholkularitza espezializatu batera, joan naizena eskatzera, mesedez, eta noski azkenean egin didate. Zenbaki hauek ontzat hartu nahi ditugu? Beste zenbaki batzuk izan nahi ditugula, beste kalkulu bat egingo duen beste enpresa bat izan nahi dugu aldeak ikusteko, bat datozen ala ez ikusteko? Bada egin dezagun. Baina egin dezagun zerbait, itxaroten egon gabe. Ni zain, zain, zain eta zain nago. Baina ez nago ados aurkeztu didazunarekin, hasieran 86 baitziren, ondoren 68 ziren, edo 68 onartu zuten, eta gero 78 ipini dute. Eta orduan haserretu egiten gara eta horri eusten diogu. Bada, ez. Joan zaitez enpresarekin hitz egitera...

Alkatea: hori 2018ko martxoan egin genuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: joan zaitez enpresarekin hitz egitera, joan zaitez zenbakiak ikustera, frogatuko dizut izan genuen azken bilkuran % 20a beti gaizki aplikatzen dugula...

Alkatea: Joseba barkatu, baina egungo egoera Arteak kudeatzen du, Artea da Artadirekin hitz egin behar duena, ez da Udala Artadirekin hitz egin behar duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: zuk alde guztiekin hitz egin beharko duzu, Iñigo. Alkate modura alde guztiekin hitz egin beharko duzu.

Alkatea: ez da Udala Elkartearekin hitz egin behar duena.

Joseba Elejalde Ribacoba: Tubacexekin hitz egiten duzun bezalaxe, edo, bere garaian CELeekin hitz egitera joan zinen moduan, langileekin hitz egingo zenuen, enpresarekin hitz egingo zenuen, guztiekin hitz egin zenuen, kasu honetan ere guztiekin hitz egin beharko duzu. Hitzarmena sinatuta duzunarekin hitz egin beharko duzu eta langileekin. Ea zein den langileek duten arazoa, eta azal diezazutela. Azal diezazutela duten arazoa. Eta enpatia izan. Eta ez tematu. Eta tematzen baldin bagara ez ezazu izan Tubacex enpresako batzordearekin bilkura bat. Zuk ez duzu ezer eta. Zuk Alkate modura, Tubacex enpresan ez duzu ezer. Ez zaude zuzendaritza Batzordean, ez zaude enpresa batzordean. Ezer ez, Alkate modura, ezer ez. Beste kontu bat da zu, Alkate modura, zure ardura onean zein txarrean bertan izatea da, eta udalerrri honetako langileen alde begiratzea edo planta horretan lan egiten duten inguruko herrietako langileen alde. Hori da zure ardura. Eta Alkate modura zure erantzukizuna Artearekin behar bestetan elkartzea da. Eta Artadirekin elkartzea. Eta egoera hau hobetu edo konpontzeko zer-nolako aukerak dauden ikustea, eta museoa itxi dadin ez uztea.

Alkatea: Udalak zerbitzua lizitaziora ateratzeko prestutasuna erakutsi du, eta ez da nahi izan.



Joseba Elejalde Ribacoba: bat ere ez.

Alkatea: Begira Udala noraino heldu den. Eta esaten dizut, iritzi eta sentikortasunak ditugu hemen mintzagai, guztiok ditugu eta.

Joseba Elejalde Ribacoba: erabat. Batzuek beste batzuek baino gehiago.

- Joseba Elejalde Ribacoba: 2016an, ez zen atzo izan, ezta herenegun ere. Irakurri egingo dut:

*“Alderdi Popularrak azaltzen du: abuztuaren 3ko Diputatuen Kontseiluan 57/2016 foru dekretua onartu dela, landa ustiapen eta bideetarako sarbideetara bideratutako laguntzak arautzeko oinarriak ematen dituena, Euskadiko 2015-2020 landa garapenaren esparru planaren barnean. Gaur egun gure udalerrian eta hura osatzen duten auzoetan erabilgaitzak diren baso bide eta pista ugari dagoela, lur-jausiekin itxita daudenak, abeltzainek eta herriko beste auzotar batzuek horiek erabiltzea eragotziz. Ezinbestekoa da inoiz baino gehiago bideen inbentario eguneratu bat izatea administrazioek ematen dituzten diru-laguntza eta laguntza guztietara iristeko eta aurrekonturik esleituta ez dagoelako gure bide eta pistek mantenuari dagokionez duten gabezia handia arindu ahal izateko. Askoren artean nabarmendu dezakegu...”* hainbat auzo nabarmendu nituen. Eta eskatzen dut:

*“batzorde baterako deialdia luza dadila arazoa jorratzeko eta dagokion laguntza eskatzeko oinarriak zein bidek betetzen dituzten planteatu ahal izateko. Eskuragarri dauden laguntza guztietara iritsi ahal izateko bideen inbentario baten premiaz eztabaida dadila. Bideen inbentarioaren gainean egikaritze-egutegi bat programatu dadila, fase bakarrean edo bitan. Auzoko Alkate guztiei erdietsitako akordioa helaraztea haiek mantenuaren lehentasuna lokalizatu eta adierazten lagun dezaten”.*

2016. urteaz hitz egiten ari gara. Udalerrri honetako bideek egoera tamalgarrian jarraitzen dute. Iazko aurrekontuan, non EAJ alderdiarekin akordio batera iritsi nintzen, 3.000 euroko partida bat zegoen ondareen inbentario bat egiteko, ez bideena, baizik eta ondareena, Udal honentzat ere premiazko baita Udalak zein ondare dituen erabilgarri. Jakina, ondareen inbentario horren barnean, bideak ere sartuta leudeke. Partida hori, Iñigo, egikaritu gabe dago. Halaber, EAJ taldeak PP taldearekin izan zituen bilkuretako batean 10.000 euro gehiago bideratzea planteatu genuen hornidura gisa, diruzaintzako soberakinetik, ondareen inbentario hori egiten jarraitzeko. Gaur egun, ondareen inbentarioa iaz zegoen bezalaxe dago, aurreko urtean bezalaxe, duela 3 urte bezalaxe. Artziniegako Udalak ezin du Aldundiaren diru-laguntzetara iritsi, bide horiek guztiak katastroan ez daudelako. Ez daude inbentarioan sartuta. Eta inbentarioan sartuta ez daudenez ez dira existitzen, eta existitzen ez direnez ez dugu Arabako Foru Aldundiak urtero, 2020. urtera arte, irakurri dudan moduan, eskatzen duten udalerriei ematen dizkien diru-laguntzak eskuratzeko aukerarik. Nik dagoeneko ez dakit zer egin, Iñigo, egia esan ez dakit zer egin. Zurekin akordioetara iristen saiatzen naiz, aurrekontuetan abstentzioa eman nuen onar zitezen, izan ere uste nuen bazirela zenbait bidezidor... udalerrri honentzat onak zirenak. Urtea amaitu da eta ikusten dudanez, hitza eta ekintza elkarren artean urrun dabilta, ez da deus egin ordea. Berdin gaude. Ondareen inbentarioa ez da egin, bideen inbentarioa ere ez, ez da ezer egin. Azaldu iezadazu arren, zergatik gaur egun, 2019an, partida hori egikaritzeke dagoen.

Alkatea: bai, bai, azalduko dizut. 2017an ez zen deialdien laguntzarik egin landa bideetarako, nik dakidala, baizik eta Aldundiak egin zuena izan zen espezie moduko laguntza bat ematea, zein Kuadrillatan esku hartuko den erabakitzen duena, eta horietan esku hartu zuen zuzenean. 2018an landa bideetarako laguntzak atera zituzten eta guk



bi aurkeztu genituen. Bat, Palacioseko bidearen konponketa eta beste Santa Kolomako bidearen konponketa, biak. Izan ere, tira, lur-jausi arriskua zegoen, eta hor esku hartu genuen. Baterako diru-laguntza eman ziguten, Palacioseko biderako, eta beraz gauzatu egin dugu. Zenbatekoa 30.000 euro ingurukoa da bi bideetarako. Agian tronpatu egingo naiz, baina uste dut kopuru horren bueltan dagoela. 2019ko ekitaldirako, laguntzen deialdia egiten bada, bi bideetan esku-hartzeko lanean ari gara, arazoak eman ditzaketenak. Bat, San Romaneko bidea, bertan arrakala bat baitago eta, ondoren, batzorderen batean aipatu dugu, Mendietako Lautadetarako bidea. Ondareen inbentarioari dagokionez, ondareen inbentarioaren partida dugunez zer egikaritu planteatzen dugu, ondareak sartu edo soilik bideen inbentarioa sartu. Ondareen inbentarioarekin lotuta Aldunditik adierazten digutenez oraindik arazo bat dago kontabilitate-planaren barnean ondareen inbentarioaren esku-hartzearekin, eta batez ere bideen inbentario bat egiteko egokitasuna aipatu genuen. Bideen inbentarioaren harira, lehendabiziko aurrekontu bat eskatu genuen bideen inbentarioa egiteak gutxi gorabehera zein kostu izango lukeen ikusteko, eta kontratazio txikiko mugak gainditzen ditu. Horrenbestez, prozedura ireki batera jo beharko dugu, izan ere, orain prozedura negoziatua ez da existitzen dagoeneko. Prozedura laburtu, arrunt edo arras laburtu batera joan beharko dugu, ez dakit kontratuen legean jasotzen diren prozedura berriak zein diren. Horrek, zertara behartzen gaitu? Klausula teknikoen plegu bat egitera behartzen gaitu, klausula ekonomiko eta administratiboen plegu bat egitera, eta espedientea modu elektronikoan izapidetzera. Eta hor geratu gara. Aurrekontu bat dugu, egikaritzeko aukera eman ez ziguna kontratu txikia izateagatik eta horrenbestez, prozedura ireki batera joan beharrean gaude eta klausula teknikoen plegua eratu beharko da, eta klausula ekonomiko eta administratiboen plegua. Hori ondareen inbentarioa eratzeko.

Arkaitz San Jose Martinez: uzten baldin badidazu, Joseba, izan ere, gero esaten dugunean soberakin asko izatea ez dela kudeaketa onaren ondorio baizik eta estrategikotzat hartzen diren gaiak jorratzen ez direlako izaten dela, zuek ezetz diozue, beno, beti hobe dela izatea. Halako gauzak ditugu aipagai halako gauzez hitz egiten dugunean. Ez baldin badago diru-laguntza lerrorik gauzak ez al dira egiten? Zein ari da Artziniegako lehenatasunak zein diren erabakitzen? Udala edo beste erakunde batzuk? Argi dagoela dirudi, diru-laguntzarik ez dugulako garrantzitsutzat jotzen ditugun gaiak jorratzen ez baditugu, azkenean ez gara herriari so gobernatzeko ari, herrian egiten denari buruzko erabakiak hartzen dituen ez da Udala. Mila bider esan dugu, egoera ekonomikoa beste bat izan balitz, ez dakit, zehurtzia gehiago egongo zatekeen. Baina soberakina dugu, hain zuzen, halako gauzengatik. Gauza bat garrantzitsua dela uste dugulako, baina gorago dagoen erakunde batek ez badu garrantzitsutzat jotzen ez da jorratzen. Gauza garrantzitsuak daudela argi baldin badugu egin dezagun, horretarako baitago gainera soberakina. Eta gero diru-laguntza lerro bat baldin badago ongi, eta diru-laguntza lerrorik ez badago ere bai. Bestela gure interesek eta beste interes batzuek bat egin arte itxaron beharko dugu.

Alkatea: Ez al dizut esan aurrean bideetan obrak egikaritu ditugula?

Arkaitz San Jose Martinez: diru-laguntzak egon direlako.

Alkatea: ez, ez, bideetan obrak egikaritu ditugu, Palacioko bidea diruz lagunduta dago, baina



Santa Kolomako bidea ez.

Arkaitz San Jose Martinez: Josebak esan dizu eta zuk esan duzu “2017an ez zen egin diru-laguntza lerrorik ez zegoelako”

Alkatea: urte hartan ez zen diru-laguntza lerrorik atera.

Arkaitz San Jose Martinez: eta horrek beste gauza batera garamatza, deialdiak irteten diren arte ez garela obrekin hasten, eta horregatik iristen zaigu urte amaiera obrak amaitzeko estutuz. Has gaitzen interesatzen zaizkigun gauza egiten eta urtariletik.

Alkatea: bai, eta horregatik ditugu dagoeneko Foru Planarekin soberakinetik 500.000 euro konpromisoan hartuta. Eta badakizu zergatik dugun soberakin handia? Izan ere, gero saiatzen garelako, adibidez, Ereinek igerilekuak estal ditzala eta ez dizkigu estaltzen, eta berezko soberakinetik egin behar dugu aurrera, eta ehun eta mila eta ez dakit zenbat euro ipini behar ditugu, diru hori guretzat genuelarik, eta ez dugu jadanik, eta egikaritu egingo dugu. Horregatik izan behar da soberakin handia. Eta nahi baduzu egin ditugun inbertsioetara begiratuko dugu eta lortu ditugun diru-laguntzetara.

Arkaitz San Jose Martinez: nahi baduzu aurrekontuan aurreikusita dauden eta urte amaieran egikaritzeke dauden partida guztiak begiratuko ditugu. Hori ere begira dezakegu. Gai askotan, euskarari, kulturari.

Joseba Elejalde Ribacoba: kasu honetan garrantzitsuena dena zera da, 2016an idatzi bat sartu zela, nire ustez, Udal honentzat beharrezkoa den zerbaitekin, beharrezkoa. 2016an, orain 2019an gaude eta orain esaten didazu prozedura negoziatu bidez egin behar dela, edo ireki bidez, barkatu, dugun aurrekontua ezin delako kontratazio zuzenean egin. Baina 25.000 edo 30.000 eurotik gorako balioa zuela baldin bagenekien. Hori bagenekien Agurtzane alkate modura zegoenean. Hau ez dator 2016. urtetik eta, aurretik dator eta. Gertatzen dena da 2016an idatzia sartu nuela, eta esaten dizut arazoa dela zu bihar Aldundira zoazela...

Alkatea: oker zaude, izan ere, landa bideen inbentarioari dagokionez dugun aurrekontuak gainditu egiten du gutxiagatik kontratu txikiaren gutxieneko zenbatekoa zerbitzuak emateari dagokionez.

Joseba Elejalde Ribacoba: duela gutxi esan didazu ordea prozedura ireki bidez atera beharrean zaudela gainditu egiten duelako... atera ezazu atera behar duzun moduan, baina ez orain. 2016. urteaz ari gara hitz egiten. Zuk Udal honetako Alkate modura ulertzen baduzu oposizioko alderdi baten proposamena ona dela, egin ezazu. Eta gainera arrazoiak emango dizkizut, zioen azalpena argia da. Zu bihar Arabako Foru Aldundira joan eta Erreta Tuterako Iturri Zaharreko bideaz hitz egiten baduzu, 500 metro baino gehiago direnak, eta haiek 80 soilik dituzte bidean, hots, duela 15 urte zoladura egiteko konpondu zituzten 80 metroak, herrigunetik San Roke ermitara doan zatia.

Alkatea: 80 metro dira, uneren batean Aldundiak esku hartu eta diruz lagundu zituenak, izan ere, Aldundiaren bideen inbentarioa haiek finantzatzutako bideekin dago osatuta eksklusiboki. Esklusiboki. Horregatik da garrantzitsua diru-laguntzetara aurkeztea baita ere.

Arkaitz San Jose Martinez: nik ez dut ezetzik esaten ordea. Ulertu nahi ez banauzue, ez dakit dagoeneko, azkenaldian ez nauzuela ulertzen sentitzen dut...

Alkatea: eta gainera, aurrekontua ikusi baldin baduzu, aurrekontua ikusi duzu, inbertsiorako dugun gaitasuna ikusiko zenuen, ikusi duzu. Diru-laguntzetara jotzen ez badugu, ezer gutxi egin dezakegu.



Joseba Elejalde Ribacoba: aurrekontuaren gaineko albisteak ematen hasten baldin bagara, arranpola, 3 urtetan pasa gara Ekain, izeneko enpresa batekin 8.037,09 euro fakturazetik urte honetan 16.000 euro fakturazera. 3 urtetan, ia % 100eko igoera. Nola izango dugu bada soberakina, inbertsiotik ezer ezin dugu eduki. % 92-93ko gastua baldin badugu, azken batean zer-nolako inbertsioak egingo dituzu % 7 batekin? Bi milioi eurotik 140.000 euro geratzen zaizkizu. Zer egingo duzu 140.000 euroekin? Kaleko 100 metroan zoladura ipini, agian oso luze jo dut, hori izan baita Arkaitzek esan duena. Azken batean beste Administrazio batzuen laguntza behar dugu obrak egin eta egikaritzeko gihar ekonomikoa eman diezaguten. Bestela, Artziniegako Udaletik, % 93ko gastu batekin, % 92tik gorako batekin, ezinezkoa zaigu inbertsio garrantzitsu eta tamainakoak egitea, eta hori da Udal honek behar duena. Baina horretaz hitz egingo dugu aurrekontuen egunean, izan ere... Bitxia da, gauza batzuetarako enpresa bati 3 urtetan % 100 igotzea, ia % 100, eta beste batzuetan zentimoari begira egotea, edo bi zentimori begira.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ez dakit azkenean, galdera honakoa izango litzateke, ez dakit ondareen inbentarioa izango den edo bideen inbentarioa, dena nahastu baitidazu pixka bat, zer da aurten lehiaketara aterako duzuna? Aurten izango bada behintzat, edo datorren urtean izango da, edo bi urte barru.

Alkatea: egikaritzearekin eta oraindik ondareen inbentarioa kontabilitate-programan txertatzeko aukerarik gabe, ondoren ondareen kontrola eramateko eta amortizazioa, teknikariek hitz eginda garrantzitsuagoa da bideen inbentarioa. Bideen inbentarioa ondareen inbentarioko zati bat izan liteke, baina egia da bideen inbentarioak egiten espezializatutako enpresak daudela, soilik horretan. Nik hau ez dakit nola den, ez baitut parte hartu ondareen inbentarioak eratzeko prozesu bakar batean ere, baina elkarrekin eratzten duzunean badirudi bideen inbentariorekin eraketa desegin egiten dela ondareen barnean, eta hori dagoena paperean jartzea baino ez da, egiaz ez dago bideen edota titulartasunen inguruko ikerketa bat... eta horrenbestez, badirudi bideen inbentario bat egitea gomendatzen dutela.

Joseba Elejalde Ribacoba: Eta noiz egingo litzateke hori?

Alkatea: bada plegua eginda dugunean.

Joseba Elejalde Ribacoba: ados, baina epeak Iñigo, plegua eginda dagoenean esan dezakegu ekaina, plegua etzi izan dezakezu, guztiok elkar gaitzakezu astebete barru, ez dakit, azkenean berdinetan gaude, nik iaz zenbait gauza adostu nituen zurekin alderdi popularrak abstentzioa emateko...

Ascension Hormazabal Meabe: ez dakit nozi egingo dudana, akta egin behar badut, deialdia, Josebaren txostena, langileen kontua. Guztia nire baitan baldin badago, denbora beharko dut. Ez naiz lanera etortzen gaez.

Alkatea: edo Ekainek egin dezake.

Joseba Elejalde Ribacoba: Iñigo ez iezadazu adarra jo gainera, ez baitaukat gainera eguna zu adar joka etortzeko. Niri ez zait irigarria iruditzen enpresa batek hiru urtetan % 100 fakturaztea justifikatu gabe ia, ia. Are gehiago, hemendik atera bezain pronto idatzi bat sartuko dut, Ekain aholkularitza juridikoa zenbat kostatu zaigun galdetuko dut iaz Artziniegako Etnografia Museoarekin egiteko adostasunaren prozesuan, zehatz-mehatz jakiteko zenbat diru joan zaigun horretan. Nieves egotea, izan ere, bitxia da gainera, Nieves etorri eta hirigintzaz hitz egiten baitizu, jo eta kontratuei buruz hitz egiten dizu, jo eta hitz egiten dizu... neska txundigarria da, denetik dakien abokatua da. Nik pentsatzen dut abokatuen bulego batean kontratuen gaia eramaten duen norbait egongo dela, hirigintzaz arduratzen den beste bat, administrazioaz



arduratzten den beste bat, ez dakit, emakume langilea da gero, beti berdina dator eta gauza batez hitz egin dezake, hurrengoaz eta haragokoaz. Eta nik egia esan txalotu egiten dut, izan ere, gauza batez hitz egin ahal dizu eta ondoren kontrakoaz. Eta zu ez etorri orain niri adar joka Ekaini lan gehiago eman behar zaiola esanez, bada ez. laz esan zenidan 8.000-12.000 bitarteko igoera genuela aurreikusita, administrazioarekiko auzi asko zeudelako. Zuk dagoeneko aurreikusten zenuen Udal honetan administrazioarekiko auzi asko egongo zirela. Zure hitzak nik egin nizun galdera baten aurrean. Dagoeneko aurreikusten zenuen administrazioarekiko auzi asko egongo zirela. Eta orain esaten ari bazatzaizkit Ascenek duen lanaz gain Ekaini bideen inbentarioa, ondareen inbentarioa, konkurtsora ateratzeko proiektu osoa egin diezagula esan behar diogula, tira kito.

Alkatea: begira Joseba, lau urte hauetan araubide juridikoko eta administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legea sartu da indarrean, eta 30/92 Legea ordezkatzten duen 40/2015 Legea. Sektore publikoko kontratuen lege berri bat onartu da, kontratazio-sistema hankaz gora jarri duena. Administrazio elektronikoa txertatzeko epea amaitu da, horrek izan dituen ondorio guztiekin. Kontabilitate-araudi berri bat onartu da, ondarearen kontabilitaterako plan berri bat eta araubide berri bat finkatzen dituena. 2017an dekretu bat onartu zen, Arabako Lurralde Historikora egokitzeko zain dagoena, Kontu-hartzaile Idazkariaren funtzio berriak jasotzen dituena. Ez dakit beste legerik ba ote dagoen, baina Udalaren egunerokotasunaren flotazioaren lerrora zuzenean doazen legeak dira. Udalean, azken 4 urte hauetan Udaleko lana izugarri aldatu da, eta zenbait kasutan nabarmen areagotu da. Gaur egun argi daukat Ekaineko aholkularitza juridikoak Kontu-hartzaile Idazkariaren jarduerari ematen dion babesa funtsezkoa dela, izan ere, kontu korapilatsuekin ari gara lanean eta udal horien egoera dugu abiapuntu, non ez da udal handietan baino gai gutxiago ditugula, berdinak ditugu eta, baina zenbateko baxuagokoak. Eta aholkularitza juridikoaren babesa funtsezkoa da dauzkagun gauzetako asko aurrera atera ahal izateko.

Arkaitz San Jose Martinez: ildo horretatik, gure ustez, zerbitzuak kanpora ateratzea baino, edo enpresa pribatuen eskuetan uztea baino, hobe da dugun lantaldeari begiratzea, nola dagoen eta pertsona gehiago behar ote diren pentsatzea, edo ordu gehiago, ahal den moduan. Izan ere, azken batean, aurrekontua antzera atera behar bada, 16 ari gara esaten, ondoren izango dira... bada bai, teknikari batek urtean 16 baino gehiago irabazten du, baina dedikazioaren arabera ere bada hori.

- Joseba Elejalde Ribacoba: bai, beste gai bati buruz, mendiko bidea jasotzeari buruzko idatzi bat sartu nuen. Badakit, ez dakit legealdia amaitu eta zama beste bati pasatzeko zain ote zauden.

Alkatea: Zein bide?

Joseba Elejalde Ribacoba: Peñalbara igotzen dena, katastroan ez dena jasotzen, iaz idatzi bat sartu nuen Udalari eskatuz katastroan jaso zedila, lehenik eta behin bi familietan duelako eragina, bidea katastroan jasotzeak asko errazten du bi familia horiek beren lurrak ongi zedarrituta izaterako orduan, eskritoretan adierazten den moduan. Bigarrenik, jende orok Peñalbara joateko erabiltzen duen bidea, zati handi batean partikularra den pista batetik igarotzen delako. Esan nizun bide hori katastroan aitor zenezala. Angelekin harremanetan jarri ninduzun, Angeli eskatu zidan guztia eraman nion. Gainera, oso ongi ipini nizuen, izan ere, harrobiaren inguruan egiten ari naizen proiektuarekin, bidea bikain markatua dago. Euskarri digitalean ekarri zitzaizuen, eta abar, eskatu zitzaidan guztia ekarri zen. Joan den astean Angelekin izan nintzen eta esan zidan Alkateak pasa ziola espedientea baina uste zuela, edo pentsatzen duela, hurrengo legealdirako geratuko zela, oraingoan ez duelako itxurarik. Ez dakit oroimenen kutxan gordeta



ote duzun, Iñigo, ez baita berria. Egiatzko arazo batez hitz egiten ari gara, lehenik eta behin Artziniegako Udalak ez duela Peñalba iristen den bide bat. Bigarren arazoa, katastroan aitortzen ez diren bideak ditugu. Jakina, bideen inbentarioa ez baldin badugu, eta bideak non dauden ez baldin badakigu, nekez izango dugu ezer. Hirugarrenik, Elejalde familiari bururatzeko bazaio ixtea, ez dut dagoeneko pentsatzen, egoera honetan, oso arraroa, arazo bat izango zenukete, ez dakit mendira nola igoko zareten. Ez zuek, ez basozaina, ez ehiztariak, telebista-antenak konpontzen dituztenak ere ez, telefono-antenak konpontzen dituztenak ezta, inor ez. Iaz, era berean, Elejalde-Ribacoba familiarekin bilkura bat eskatu nizun, egoera hau argitzeko. Ekainean eskatu nizun. Edo iazko abenduan. Oraindik erantzunaren zain nago. Alkatearen aldetik erantzun bat nirekin eta nire familiarekin elkartzeko bide horri buruz hitz egiteko, zein baldintzatan dagoen, nola ebatz daitekeen, akordio batera iristen ote garen, desjabetu egingo ote didazuen... Gaur egun ez nauzu deitu, ez ni eta ez nire familia ere. Txundigarria da. Eta udalerriri dagokion arazo bat da. Ez da kontua nik arazo bat dudala, ez udalerriak du arazoa. Peñalbako mendira igotzeko biderik ez duzula. Eta urtebete daramazu beste alde batera begira, sekula ez dela itxiko uste duzulako, eta egunen batean atsekabea izango duzu, bat-batean auzotarren batek edo basozainak deitu eta esaten dizunean: "aizu, hemen ate bat dago giltzarri batekin". Orduan deituko duzu Elejalde familia esateko ematen "tira, konpon dezagun hau". Hots, uste dut urtebete nahiko denbora dela zuk, Alkate modura, arduradun gisa, eta berriro itzultzen gara lehengora, udalerriri honen interesak defenda ditzazun. Eta hitz egin behar duzunarekin hitz egitera joan beharko zara. Eta eseri, eta proposamenak egin, eta eztabaidatu, eta akordioak erdietsi. Eta ez baduzu egiten, arazo bat duzu. Ez dakit zein, baina arazo bat duzu. Eta dagoeneko ez dakit zer egin ordea. Duela hiru hilabete esan nizun, Josebak iradoki zidala ixteko, esan zidan, "itxi", eta hona dakarkizut berriro, eta hurrengo hilean ekarriko dizut eta berdin jarraituko dut, eta ekarri egingo dizut... joaten zaren arte. Nik uste dut maiatza noiz iritsiko zain zaudela eta maiatzean esango duzu "begira, zama hau hurrengoak har dezala". Eta hori bezala, gaur hitz egiten aritu garen beste gauza askotan. Nik zin egiten dizut gehiago... gainera, erraz jarri dizut. Mendiko bideaz dena ekarri nizuen. Zuk Alkate modura egin behar duzun bakarra da bide hori katastroan aitortu dadin espedienteak abiatzea. Ez dakit zein izapide egin behar dituzun, onartu behar duzula esan didazun guztiarekin, edo onartu diren lege guztiekin, agian egin beharko da, ez dakit, 750.000 orriko espediente bat, ez dakit. Baina ez zara ezer egiten hasi. Arazoa da ez zarela ezer egiten hasi. Eta Angelek, joan den ostegunean harekin izan bainintzen, esan zidan hark zuri guztia helarazi zizula dagoeneko, espedienteak, nola izapidetu behar zen, zein baldintzatan, dena. Zure sinadura falta zela, eta ez dakit zer izango den... baina esan zidan "nik uste dut Josebak legegaldi honetan ez duela egingo".

Alkatea: bada, ez dakit. Bada Angeli galdetuko diot.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta duela urtebeteko kontuaz ari gara hitz egiten.

Alkatea: bai, bai, Angeli galdetuko diot.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, Angeli galdetu, eta galdetu baita basozainari, eta Aldundiari, ea Peñalbako bidearen gaiarekin zerbait egin duten.

Alkatea: Angeli galdetuko diot ea non sinatu behar dudan.

- Joseba Elejalde: gauza bat geratzen zait, elikagaien bankuari buruz, izan ere, dagoeneko... Badakit atzo agertu zela... Badakit nor izan zen elikagaien bankuarena, moja Agustindarrak izan omen dira edukiontzia batera 20 pototxo inguru bota dituztenak. Baina elikagaien bankuen hartzaileak kontzientziarazi behar dira, Alkatetzako dekretuetan batzuei kendu egin zaiela, ematen zaiena kontsumitzeko dela eta ez botatzeko. Izan ere, azkenik,





persona solidarioek horren alde egiten badute eta zuk ikusten baduzu X andrea bat-batean gordeka doala poltsa bat beteta, edukiontzi batean utziz, norbait hurbiltzen bada ez zaiolako gustatu nola... eta bat-batean 20 pototxo ikusten baditu, orduan arazo bat dugu. Arazo bat dugu, izan ere, azken batean elikagaien bankuak zertarako balio duen, zein funtzio duen, eta elkartasuna nora iristen den oso gaizki ulertzen da. Elikagaien banku horren hartzaile diren pertsoneri oso ongi azaldu beharko zaie, kontzientziatu egin beharko dira, pedagogia egin beharko da, zertarako den ikus dezaten. Ezin dela bota oparitu egiten dizutena, edo dohaintzan ematen dizutena, eta beren borondatez ematen dizutena. Premia duen jende asko dago eta. Eta asko dira premian egon gabe, azken batean, hartu eta beste alde batetik botatzen dutenak.

Inmaculada Vivanco Retes: Utziko didazu horri buruz ñabardura bat egiten?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, ñabardura egin diezadakezu Inma, horregatik esan dut badakidala moja Agustindarrak direla. Hori esan zidaten atzo.

Inmaculada Vivanco Retes: ez, ez, ikus dezagun. Ez dute moja Agustindarrek bota.

Joseba Elejalde Ribacoba: bota ez, esaten dut moja Agustindarrek eman egin zutela.

Inmaculada Vivanco Retes: Udalak elikagaien bankuarekin duen hitzarmenak hainbat familiari ematen die estaldura, eta uste dut une honetan 16 familiak dutela laguntza onartuta. Oraintxe bertan 3 astetik behin egiten da banaketa. Gasteiza ekarri eta banaketa egiten da. Gaia ikertzen ari dira guztia apur bat berrantolatu egin nahi dugulako, ongi funtzionatzen ari da, berez atzo, herenegun kudeaketa bat egin nuen Garbigunerekin, hozkailu batekin hornitu gaituena, orain arte ez baikenuen hotz-katea mantentzea behar zuten gauzetarako, eta zehazki, informazio hori niri ere iritsi zitzaidan, pertsona batek Geltoki Plazako paperontzi batean pototxo batzuk utzi zituela. Pertsona horrekin hitz egin da, barkamena eskatu du, esan zigun produktu horiek Agustindarrak emandakoak zirela. Moja Agustindarrei norbaitek elikagai-produktuek ematen dizkie... baina ez dakit nondik, ez baita elikagaien bankua, ez dakit nondik iristen zaien laguntza, orduan pertsona hori, pototxo horiek data iraungita zuten. Ez dakit iraungitze-data edo kontsumo lehenetsiaren data ote zen. Han utzi zituen pertsonari esan zitzaion kontsumo lehenetsiarena baldin bada ez dagoela kontsumitzeko arazorik. Iraungitze-data baldin bada, badirela oraindik baliagarri diren zenbait gauza. Pototxoak zirenez, esan diguna da berak ez duela inolako arazorik, baina ez zitzaiola iruditzen bere haurtxoari iraungitako janaria ematea, horregatik utzi zuela, eta azalpenak eman zituen eta barkamena eskatu zuen. Eta esan zitzaiona da beste batean, aurrez begira dezala eta iraungita baldin badago ez dezala jaso, eta ez dezala hori egin, ez dela jokabide zuzena. Baina tira, konponduta dago.

Joseba Elejalde Ribacoba: Inma Udalak duen eskumena baldin badu, nik atzo pertsona batekin eztabaidatzen bainuen eta uste nuen...

Inmaculada Vivanco Retes: kasu honetan berriro esaten dizut Udaletik kanpora dagoela.

Joseba Elejalde Ribacoba: badakit, esan dizut moja Agustindarren dohaintza izan zela, esan dizut ordea. Baina hori gauza bat da eta beste gauza bat da egin behar dela, zuk berriki esan didazun pedagogia, harekin hitz egiten aritu zaretela, hartzaile diren pertsona guztiei eman behar zaiela, bestela azken batean atzokoaren moduko gauza askorekin aurkituko gara, eta sarritan jendea haserretu egiten da, eta normala da. Esatea iraungitze-datarena, kontsumo lehenetsiaren datarena, begira, eta gogoan dut zu nirekin zeunden batzorde batean, Polentzik izan zuen arazo hura izan zueneko. Eta gaileten kaxa batean jartzen zuelako, gaileten kaxa Alkatearen bulegoan egon zen denboratxoan, iraungitze-data astebete lehenago bete zela uste dut, eta arazo bat izan genuen horregatik itzuli egin zutelako, edo bota egin zutelako. Nik joan den asteko jogurtak jan ditut lasai asko, izan ere, tapa puztuta ez duten bitartean ez zaie ezertxo ere gertatzen.



Inmaculada Vivanco Retes: zuk eta guztiok, baina orduko horretan...

Joseba Elejalde Ribacoba: horregatik diotsut, pedagogia egin behar dela.

Inmaculada Vivanco Retes: esaten dizut Joseba, orduko horretan, nik elikagaien bankura hots egin nuela, horri buruzko azalpenak jasotzen zituen paper bat igorri zidaten, eta nire lanetik etorri nintzen banaketaren egunean, elikagaien bankua onartuta zuten pertsonekin izan nintzen, azaldu nien eta argi utzi nien.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni Udalari ez natzaio ezer leporatzen ari ordea. Ni esaten ari naiz zerbitzu honen hartzaileei, oker ez banago, orain loteak ematen dizkiena udaletxeko jendea dela, ezta?

Inmaculada Vivanco Retes: Udalak ekartzen du.

Joseba Elejalde Ribacoba: azken batean baldintzak zein diren argi uztea haiei. Ezin dena da hori onartu, jendeak... eta bestela zuk esan duzuna. Produktu bat ematen badidate eta iraungita dagoela ikusten badut esango dut "ez begira, utzi hurrengoarentzat nik ez baitut eramango". Ez dena bidezkoa da zuk eramatea eta ondoren 20 pototxo botatzea nahi duzuna alegatzen duzularik ere. Bestela, ez hartu, etorriko da atzetik hartu nahi dituen norbait.

Inmaculada Vivanco Retes: horixe azaldu zaie, barkamena eskatu dute, eta kito.

Eta jorrazeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamarrak eta berrogeita hamabost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.